



"Apaltasunez eta zintzotasunez kudeatu nahi dugu Gipuzkoa"

Martin Garitano | Bilduren ahaldu nagusigaita | 8

200 ume bilduko dira domekan Aretxabaletako Haur Dantzarien Egunean | 22



Manolo Muñoz izendatu dute Eskoriatzako kiroldegia | 24



Alardean parte hartzeko dei egin diete Antzuolan herritarrei | 25



Antolakuntza taldeko kideak Mundumirako kamiseta soinean dutela, kartela erakusten.

LARRAITZ ZEBERIO

Mundumira jaialdia gaurtik domekara arte Elgetan

- ▶ Ohikoaz gain, Irrien Lagunen Kluba ere egongo da
- ▶ Autobus zerbitzu berezia jarri dute igotzeko | 31

Uema Eguna Bergaran ekainaren 4an

Egun osoko egitaraua prestatu dute. Herri bazkarirako txartelak salgai daude. | 16



Gabez Takarraran ekainaren 11n Eskoriatzan

20 km-ko proba da eta izen-ematea zabalik dago | 29

SINADURAK



Bigamo | 6
DIEGO MARTIARTU

6 | Agur eta eskerrik asko
ARRITXU BARRUSO

Tentazioari eutsi | 40
MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 3 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 |
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 |
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 |
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 |
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

ASCENSORES HEMEN IGO GURE IGOGAILUETARA

AURREKONTUA
2 EGUNETAN
igogailu mantenimentua erdi prezioan

Informa zaitez:
Tel.: 943 04 40 01
debagoiena@ascensoreshemen.com
www.ascensoreshemen.com



SEAT EXEO ST

120 ZP
2000 TDI
23.000 eurotik aurrera



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otorala lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Arte kale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

M-22 Herritarrak baikor datorren agintaldirako

Bilduren garaipena espero zuten elkarrizketatuek Agintari berriongan konfiantza erakusten dute

1. Espero zenituen emaitza horiek?
2. Zure iritziz, zeri erantzuten diote?
3. Zer eskatuko zenieke agintari berriei?



GOIENA

RAFA GOMEZ
AL ANDALUSEKO PRESIDENTEA

"PSE-EEk gehiago galduko zuela uste nuen, herritarren zigorragatik"

1. "Bai, espero nituen. Bilduren ilusioak eta bi hilabete jaso duten propagandak eragin ditu. EAJren eta Aralarren botoen zati handi bat Bildura joan da. PSE-EEk gehiago galduko zuela pentsatzen nuen, jende askok, zoritxarrez, herriko ordezkariak zigortu dituelako, gobernuko agintariak zigortu nahian".

2. "Esan bezala, Bilduk ilusio handia zeukan eta propaganda handia jaso du; eta, bestetik, egoera ekonomikoa oso larria da eta gobernuak ez du jakin izan bere neurriak jendeari ulertarazten. Andaluzian, ezkerrearen gotorlekuan, PPK irabazi handiak jaso ditu ezertxo egin gabe, egoeraz aprobetxatuta bakarrik".

3. "Arrasateri dagokionez, ez dut orain artekoarekiko aldaketa handirik espero. EAE-ANV-ko alkateak Arrasateren alde egin duenarekin pozik nago. Alkate berriari eskatzen diot jarrera ona izan dezan -batez ere, kontuan hartuta gehiengo absolutua dutela- eta lan onarekin jarrai dezan; ahal bada, hobetzeko".



GOIENA

RAUL LOZANO
LANGILEA

"Agintari berriek garbi joka dezatela eta herriari entzun diezaiotela"

1. "Batez ere, Gipuzkoan eta Nafarroan espero nuen Bilduk emaitza onak izatea, baina ez hain onak. Koloreak definitzen doaz: batetik, alde espainolista, PP eta PSE-EEekin, eta bestetik, abertzalea, EAJ eta Bildurekin. Aralar eta Hamaikabat ia erreferenterik gabe geratu dira".

2. "1999tik lehenengo aldiz izan dute sentzibilitate guztiak aurkezteko aukera, eta Bilduk ilusioa piztu du. Horrez gain, jende askok boto baliagarria eman nahi izan du. Hala, Aralarren mezua, adibidez, ez da hain garbia izan oraingoan, eta Bilduk gardentasun handia erakutsi du. Bestalde, gazte askok Bilduren alde eman du botoa, eta hori oso garrantzitsua da etorkizunerako begira".

3. "Jokabide garbia izan beharrezko lukete, eta, batez ere, partaide izan; ez daitezela partidistak edo elitistak izan eta herriaren nahiak eta beharrak entzun ditzatela. Bestalde, oso positiboa da indarrak eta ikuspuntu desberdinak batzea, batez ere abertzaleon artean".



I. ARRAZOLA

IÑIGO ARRAZOLA
IKASLEA

"Ahdun nagusiari eskatzen diot EAJrekin paktuak egiten saiatzeko"

1. "Foru Aldundian, uste dut inork ez zuela espero Bildu horrelako indartsu sartuko zenik. Oñatiko Udalean, nik neuk ere ez nuen horrelako emaitzarik espero. Itxaropen handirik gabe baina botoa ematera joan nintzen. Orain ikusten da jende askok gauza bera egin zuela".

2. "Alde batetik, ilegalizazioa zela -eta, gura zuen jende askok ezin izan du botoa libre eman urte askoan. Beste alde batetik, Bilduk, koalizioa izateagatik, boto gehiago batu ditu, EA eta Alternatiba barruan daude eta. Azkenik, jende askok aldaketarako gogoia duela ikusten da; hori garbi ikusi da Oñatin, behintzat".

3. "Alkate berriarekin gazteon ahotsa gehiago entzungo delakoan eta Udalaren partetik inplikazioa egongo delakoan nago. Ahdun nagusiari esango nioke, EAJrekin paktuak egitea zaila den arren, saiatu egin beharko lirakeela. Euskal erkidegoan, EAJk indar handia du, eta orain Bilduk, neurri batean, EAJ posizioatzea eragin beharko luke".



GOIENA

MARIASUN PAGOAGA
AKTOREA

"Herriari begira lan egin dezatela, eta baita beste batzuei entzunda ere"

1. "Emaitza onak espero nituen, bai; akaso ez izan diren adinako onak, baina bai".

2. "Bailaran, Gipuzkoan eta Euskal Herri osoan, garbi geratu da biztanle asko zigortuta egon direla. Orain arte, ezker abertzalea alboratuta egon da; azkenaldian aurrerapauso asko eman ditu, baina inork ez ditu ikusi nahi izan. Orain, koalizioan minimo batzuk ipini dituzte eta denok batera lan egin dute; aldiz, beste politikari batzuek bakarrik siglei begira ibili dira. Koalizioak herriari begira aritu dira".

3. "Eskatzen diet zentzuz eta sentzibilitatez lan egin dezatela, herriari begira eta baita beste batzuei entzunda ere; denekin batera lan egin dezaten, udal-letan eta Euskal Herri osoan. Bestalde, esan nahi diet euren buruarengan konfiantza izan behar dutela. Erakundeetan sartu dira lan hori aurretik jakin gabe, baina kapazak dira aurrera eramateko, eta herritarren laguntza izango dute".



GOIENA

JOXE ARANZABAL
BLOGARI ETA IDAZLEA

"Sekulako ilusioa piztu da ezker abertzalea egoera normalera bihurtzeko"

1. "Espero nuen Bilduk uzta oparoa jasoko zuela, bai, baina ez hainbestekoa. Ezustekorik handienak niretzat Oñatiko eta Donostiako udaletako emaitzak izan dira. Baita Bilduk Gipuzkoan erakutsi duen nagusitasuna ere, alde handiz irabazi baitu".

2. "Hamar urte egin ondoren, sekulako ilusioa piztu da ezker abertzalea egoera normalera bihurtzeko, besteak beste horrek finka lezakeelako Sorturen apustua bide politikoen alde. Gainera, Bilduk aurpegi freskoak aurkeztu ditu, ezker abertzalearen aurreko bideak markatu bakoak".

3. "Agintari berriei eskatzen diet aurrekoei eskatzen nien gauza bera: zintzo eta arduraz jokatzeko, denon ongizatea eta diruak kudeatuko dituzte-eta. Horrez gain, nahiko nuke pragmatikoak izatea, uztartzerakoan euren programa eta gainerakoan euren programa nahiak. Zorrikerik onena opa diet".

EDUARDO ZUBIAURRE | ENPRESABURUA

"Errespetu osoz hartuko nuke Bilduk eratutako foru gobernu bat"

Gipuzkoako enpresaburuen presidentea Eduardo Zubiaurrek "egonkortasun" instituzionala eskatu zuen Donostian egindako prentsaurreko baten.

Zelan baloratzen dituzu hauteskunde emaitzak?

Gipuzkoarrek euren borondatea adierazi dute, eta errespetu osoa daukat horrenganako. Emaitzak zilegiak eta demokratikoak dira; onartu egin behar ditugu eta dagokion zori ondu. **Zelan ikusiko zenuke Bilduren Foru Aldundi bat?**

Errespetu osoz hartuko nuke. Adegik beti erakutsi du erakundeen arteko elkarlanerako borondatea,



Zubiaurre. | GOIENA

elkarlana ezinbestekoa delako gauzak hobetzeko eta gartzeko. Bestalde, zergatik ezin izango du Bilduk gobernu egonkor eta inizatibaduna eratu? Erantzukizun polita dute.

Zer eskatuko diezue agintariei?

Gobernuak eratzten direnean, euren joko dugu gure eronkekin eta gure lehiakortasuna handitzeko ditugun kezkekin.

AHTren, Pasaiaiko kanpoko portuaren eta errauskailuaren aurka dago Bildu. Zer diozu?

Azpiegitura horien alde dago Adeggi, eta gure jarrera ezin izango da bateragarria izan haien aurka dagoenarekiko.

Ekintzailetasuna bultzatzeko topaketak egin ditu MUK

Ekin ekintzailera topaketan 150 ikaslek parte hartu dute aurten

ASIER ALKORTA | ARRASATE

Enpresa mundua ikasleengana hurreratu eta espiritu ekintzailea sustatzeko asmoz, aurten ere Ekin ekintzailera topaketak egin dira Mondragon Unibertsitatean. Ekintzailera esperientzia zehatzak ezagutzeaz gain, enpresa bat martxan jartzerakoan sortu daitezkeen kezkek ere berta-bertatik ezagutu zituzten ikasleek. Topaketetan 150 ikaslek parte hartu dute.

Urtero bezala egin dira topaketak. Aurtengoa Ekin topaketan V. edizioa izan da. Eta, besteak beste, Joxe Mari Aizega unibertsitateko errektoreordeak eta Eneko Knörr Ideatecako sortzaileak parte hartu dute topaketetan egin diren mahai-inguruetan.

Aizeaga eta Knörr-ekin batera Euskadi Gazteko *Di Da* saioko aurkezle Joseina Etxeberriak ere parte hartu zuen topaketetan.

Topaketak egiteaz gain, Ekin ekintzailera lehiaketak aurkeztu dira: Enpresa Ideiak, Landa garapena eta Gazteria eta Kirola arloetakoak.

Adituen hitzak entzun eta etorkizunean baliagarri egingo zaien informazioa jasotzeaz gain, ikasleek lan praktikoa ere egin



Ikasleak, martitzenean Ekin topaketetan parte hartzen. | MONDRAGON UNIBERTSITATEA

zuten. "Lan praktikoa horren helburua gazteek proiektu bat nola egiten den ikastea izan da".

Ekintzailera sustatu

Mondragon Unibertsitateak behin eta berriz azpimarratzen die ikasleei enpresa bat sortzerakoan edota enpresa baten lan egiterakoan jarrera aktiboa eduki behar dela. "Ikasleek jakin egin behar dute euren kabuz enpresa berriak sor ditzaketela, baina horretarako jarrera praktikoa eta aktiboa eduki behar

dutela; ekintzaileak izan behar dute".

Ekintzailerasun hori bultzatzeko asmoz sortu dira lehiaketak ere. "Aurten hiru lehiaketa daude: Ideia Lehiaketa Gazteria eta Kirol arloan, Landa Garapenerako Ideia eta Proiektuen Lehiaketa eta Enpresa Ideia Berrien Lehiaketa".

Halaber, enpresa ekimen berriak sortzeko lehiakortasuna hobetzea eta diziplina ezinbesteko faktoreak direla nabarmendu zuten adituek.

Udako ikastaroetan izena emateko epea martitzenean amaitzen da

A. ALKORTA | BERGARA

UNED-Bergara Ikastetxe Elkartuak ekainaren 15 eta 30 bitartean egingo dituen udako ikastaroetan izena emateko epea martitzenean amaitzen da. Guztira, 31 ikastaro eskaintzen dira aurten, ikastaro berriak tarteko.

Gizarte Zientziak eta Humanitateak, Linguistika eta Literatura, Hezkuntza eta Psikologia eta Zientzia eta Teknologia arloko 31 ikastaro egingo ditu UNEDek ekainaren 15etik 30era bitartean Bergarako egoitzan eta Donostiako hainbat ikastegitan.

Aurten ikastaro honek antolatzen diren hamargarren aldia

da eta besteak beste, ikastaroen helburua ezagutza osatu, sakondu edota bestelako gaiak jorratu eta ezagutaraztea dira.

Eskaintza berriak

Aurten, UNED-Bergarak eskaintza berriak dakartza: datuen babesa, dokumentuen kudeaketa, coaching-a, pertsonetan oinarritutako berrikuntza, adimen emozionala, neuropsikologia edo lagunduriko kalkuluan oinarritutako ikastaroa.

Informazio gehiago jaso edo matrikulazioa egiteko interesatuek UNED-Bergarara joan (Martin Agirre plaza 4) edo telefonoz deitu (943-76 90 33) beharko dute.

Mondragonek lantoki berriak zabalduko ditu Indian eta Txinan

Mondragon Korporazioak bost eta zazpi lantoki berri zabalduko ditu aurten Indian eta Txinan. Datozen hiru urteetan bi herrialdeetan salmentek gora egingo dutela aurreratu du Josu Ugarte korporazioko nazioarteko presidentek. "Lantoki berriak zabalduko planak ez dira gelditu".

Raul Gartzia aukeratu dute Ulma C y E-ko presidente berri

Ulma C y E kooperatibako kideek Raul Gartzia aukeratu zuten presidente berri egubakoitzean egindako batzarrean. Gartzia oraingo presidente Xabier Mugartzak baino babes handiagoa lortu zuen. Bestetik, Ulma Talde osoko presidente berria ekainean aukeratu dute.

DEBAGOIENEAN LANBIDE HEZIKETA

OÑATIN:

- Batxilergoa:
 - Zientzi teknologia
 - Giza eta gizarte zientziak

- Erdi Mailako Heziketa zikloak:
 - Mekanizazioa
 - Linea eroanbideen eta makinaren mantenu elektromekanikoa
 - Natur ingurunean kirol ekintzen gidaritza

- Langile eta langabetuentzat ikastaroak

- Sarbide frogarako prestaketa klaseak

ARETXABALETAN:

- Erdi Mailako Heziketa Zikloak:
 - Erizaintzako zaintza osagarriak
 - Mekanizazioa
 - Soldadura eta galdaragintza
 - Karrozeria
 - Ibilgailuen elektromekanika

- Goi Mailako Heziketa Zikloak:
 - Metal eraikuntzak
 - Galdaketa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa

- Eskaintza Partziala: Erizaintzako zaintza osagarriak

- Langile eta langabetuentzat ikastaroak



BERGARAN:

- Erdi Mailako Heziketa Zikloak:
 - Mekanizazioa
 - Administrazio kudeaketa
 - Instalazio elektrikoak eta automatikoak

- Goi Mailako Heziketa Zikloak:
 - Diseinua fabrikazio mekanikoan
 - Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
 - Administrazioa eta finantzak
 - Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
 - Industri ekipoen mantenimendua

- Espezializazio Graduondokoa: Hotzeko estanzak

- Sarbide frogarako prestaketa klaseak

- Eskaintza Partziala: Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa

- Langile eta langabetuentzat ikastaroak

"Zure etorkizunean pentsatuz LHan gauzatu"



AURREMATRIKULA: ekainaren 1etik 10era. • **MATRIKULA:** uztailaren 4tik 8ra.


M-22 Bildurendako bailarako 115 zinegotzietatik 60

- ▶ Zazpi herritan gailendu da Bildu erabateko gehiengoarekin
- ▶ Aralarrek boto bateko aldearekin irabazi zuen Elgetan
- ▶ Oñatiarrek EAJkoa ez den alkatea izango dute lehen aldiz ekainaren 11n


10 debagoiendar Batzar Nagusietan

Guztira, hamar batzarkide debagoiendar izango ditugu legealdi berrian. Bederatzi, Gipuzkoako Batzar Nagusiek; beste bat, Arabakoek. Deba-Urola barrutian hauxe izan da emaitza: Bildu: 7, EAJ: 4, PSE-EE: 2; eta Aralar: 1. Barruti horretako batzarkide debagoiendarrak izango dira: Ander Rodriguez, Mikel Biain, Goizane Arana eta Amaia Larrañaga (Bildu); Aintzane Oiarbide eta Ainhoa Galdos (EAJ); eta Rebeka Ubera (Aralar). Bestalde, Donostialdea barrutian, beste bi batzarkide debagoiendar: Martin Garitano bergararra (Bildu) eta Rafaela Romero (PSE-EE) mondragoetarra. Eta, azkenik, Arabako Batzar Nagusietan, Lurralde Jareetako barrutitik, Iñaki Nafarrate (EAJ) aramaiorra.

DEBA-UROLA BARRUTIKO BATZAR NAGUSIAK BALEUDE...



GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK



EMAITZAK HERRIZ HERRI

ARRASATE

	BOTOAK	%	ZINEG.
Bildu	4.726	43,60	11
EAJ	2.114	19,50	4
PSE-EE	1.903	17,56	4
Aralar	771	7,11	1
PP	748	6,90	1
Ezker Batua	412	3,80	0
ZURI	166	1,53	-
Errolda:	17.899		
Abstentzioa:	6.961 (%38,89)		

BERGARA

	BOTOAK	%	ZINEG.
Bildu	3.608	47,22	9
EAJ	2.044	26,75	5
Aralar	748	9,79	2
PSE-EE	691	9,04	1
PP	235	3,08	0
Ezker Batua	152	3,08	0
Berdeak	85	1,11	0
ZURI	78	1,02	-
Errolda:	11.672		
Abstentzioa:	3.978 (%34,08)		

OÑATI

	BOTOAK	%	ZINEG.
Bildu	3.308	52,30	11
EAJ	1.936	30,61	6
PSE-EE	238	3,76	0
Aralar	230	3,64	0
PP	203	3,21	0
Ezker Batua	190	3,00	0
Hamaikabat	182	2,88	0
ZURI	38	0,60	-
Errolda:	8.822		
Abstentzioa:	2.673 (%30,03)		

ARETXABAETA

	BOTOAK	%	ZINEG.
Bildu	1.513	44,7	7
Aralar	786	23,3	3
EAJ	630	18,2	2
PSE-EE	262	8,1	1
PP	132	4,0	0
Ezker Batua	77	2,0	0
ZURI	38	1,0	-
Errolda:	5.325		
Abstentzioa:	1.850 (%35)		

ESKORITATZA

	BOTOAK	%	ZINEG.
Bildu	942	48,33	6
Elizateak	270	13,85	2
EAJ	231	11,85	1
PSE-EE	226	11,60	1
Ezker Batua	167	8,57	1
ZURI	45	2,21	-
Errolda:	3.207		
Abstentzioa:	1.244 (%38,79)		

ANTZUOLA

	BOTOAK	%	ZINEG.
Bildu	752	60,94	7
EAJ	288	23,34	3
PSE-EE	141	11,43	1
ZURI	35	2,84	-
Errolda:	1.710		
Abstentzioa:	463 (%27,07)		

ELGETA

	BOTOAK	%	ZINEG.
Aralar	246	37,84	4
Bildu	245	37,69	3
EAJ	138	21,23	2
PP	8	1,2	0
PSE-EE	6	0,92	0
ZURI	7	1,07	-
Errolda:	873		
Abstentzioa:	212 (%24,28)		


ARAMAIO

	BOTOAK	%	ZINEG.
Bildu	538	60,72	6
Aram. Alkart.	177	19,98	2
EAJ	142	16,03	1
PSE-EE	8	0,90	0
PP	3	0,34	0
ZURI	18	2,03	-
Errolda:	1.197		
Abstentzioa:	304 (%25,25)		

LEINTZ GATZAGA

	BOTOAK	%	ZINEG.
Hautesle Elkar.	121	93,80	7
PP	1	0,78	0
ZURI	7	5,43	-
Errolda:	202		
Abstentzioa:	69 (%34,15)		

DEBAGOIENENKO EMAITZAK



- BILDU** Alderdi bozkatuena izan da Debagoieneko herri guztietan, Elgetan izan ezik. Gainera, zazpi herritan erabateko gehiengoarekin gailendu da.
- EAJ** Kolpe gogorra jaso dute jeltzaleek hainbat herritan, batez ere Oñatin. Han zinegotziak eta alkatetza galdu dute.
- ARALAR** Koalizioak utzi eta bakarka aurkeztu den herrietan zinegotzi batzuk galdu ditu. Dena den, Elgetan alderdi bozkatuena izan da.
- PSE-EE** Azken agintaldian ordezkari izan duen herrietan zinegotziak galdu ditu: Bergaran bi eta Oñatin bakarra, besteak beste.
- LGHE** Leintz Gatzagako plataformak herritarren erabateko babesa jaso du, eta udalbatza osatzen duten zazpi zinegotziak bereganatu ditu.
- ELIZATEAK** Eskoriatzarrak euren kudeaketarekin gustura daudela erakutsita, ezustean, bigarren zinegotzia lortu dute.
- ARAMAIOKO ALKARTASUNA** Bilduren atzetik, Aramaioko bigarren alderdi bozkatuena izan da, eta EAJren aurretik. Bi zinegotzi lortu dituzte.
- PP** Ordezkaritza eskasa zuen alderdi popularrak hauteskundeetan aurretik, eta orain eskasagoa. Itziar Lamarainek bakarrik eusten dio ordezkariari.
- EZKER BATUA** Ezker Batuak ordezkari bakarra izango du bailaran eta Aramaion. Oñatiko zinegotzia galduta, Eskoriatzako mantentzen dute.
- HAMAIKABAT** Oñatin bakarrik aurkeztu zuten zerrenda, eta esku-hutsik geratu dira. Oñatin 182 boto bakarrik batu dituzte.
- BERDEAK** Berdeak Bergaran bakarrik aurkeztu ziren, eta ez dute zinegotzirik lortu. Lanean jarraituko dutela esan dute.

vibike
bikes & triathlon

Zure ziklismo, running eta triatloi esparrua Gasteizen.

Parking propioa. Zapatu arratsaldeetan zabalik.

Bergarako Atea 24 • Gasteiz • www.vibike.com

Carrascal aroztegia

ESKALDERAKO ALTZARIAK
BAINURAKO ALTZARIAK
HORMA ARMAIRUAK
BESTELAKO ARMAIRUAK

ESKAINITZA BEREZIA CASABLANCA, SAN MARTIN ETA TXARAPEA ETXEETARAKO

Ekutio 4, Pab. 14-15
Uribarri Auzoa
20500 Arrasate
Tel.: 943 79 01 82
scarrasc_1@infonegocio.com

ZABALIK

DIEGO MARTIARTU
'http://goiena.net/iritzia/'



Bigamo

Bigamo izan nahi eta bigamiarik onartzen ez den kultura batean hazia eta hezia izatea: horra nire ezinbiziaren zuztarra, gutxienez hogeituz urtean luzatu zitzaidana, barrenak erabat janda utzi eta urdaileko gaitz batek jota San Pedroren bizarrak gertutik ikustera eraman ninduen.

Halabeharrentan tentakuluak luzeak dira, ordea. Ospitalean bertan nire gelako aldameneko lagunaren alaba ezagutu nuen. Izenaz galdetu nionean estutu egin zen apurtxo bat, eta zera aitortu zidan: orduan Marga zela, baina beste pertsona bat ere izan zitekeela. Poker-musu ikusi ninduen nonbait, eta kontenplazio barik esan zidan nortasun bikoitza zeukala, buruko gaitz horretxekin bizi zela nerabazarotik.

Biharamunean konturatu nintzen Marga haren aitak, *bazinnilla* eskatzeko, Sorkun deitu ziola.

Esan beharrik ez dago: Marga/Sorkunekin harremanetan hastea barren-barrenean zarraturik neraman desioari, bigamoa izatekoari, leihobat zabaltzea izan zen: nahi nuena eta ahal nuena lotzeko bidea.

Gutxira elkarrekin bizitzen jarri ginen Marga, Sorkun eta hirurok. Hasieran ez nuen jakiten, iratzarri berritan, ohe ondoan nuena Marga edo Sorkun ote zen, baina ez jakite horrek bazuen bere xarma. Laster ohartu nintzen Marga kartsuagoa zela Sorkun baino, baina honen ezintasuna igartzen nion faltan hari. Karra eta ezitia, bi-aki gura nik.

Gau hura magikoa izan zen: Marga esan eta Margak erantzuten zidan; Sorkuni berba egin eta Sorkunek erantzun. Une batean ni isildu, eta biak berrikeretan zebiltzala ikusi nuen. Eta ni entzuten! Hirukiaren hiru erpinek bat egin zuten izara artean eta sekulako betetasuna sentitu nuen.

Doktore jauna: Marga edo Sorkun, bietako bat haurdun dago. Seguru gaude aita nor den, ez ordea ama nor ote den. Gauzak okertzen hasi dira gu hiruron artean. Eztabaidak gero eta gogorragoak dira. Zer egin dezakegu ataka honetatik irteteko?

USTEAK USTE

ARRITXU BARRUSO | 'abarruso@goiena.com'


Agur eta eskerrik asko

Zortzi alkate berri izango ditugu Debagoienean ekainaren 11tik aurrera. Berehala ezagutuko dugu elkar; prentsaurrekoren batean, osoko bilkuretan, informazio eske alkatetzara deitzean, *Goiena* magazinea-n... Zorionak eta ongi etorri, guztio!

Haiei ongi etorria emanda, bestetik, agurtu eta eskerrak eman nahi dizkiet ekainaren 11n alkate izateari utziko diotenei: Lourdes Idojaga, Agurne Barruso, Pedro Iturbe, Ino Galparsoro, Inaxio Garro, Pedro Lasagabaster, Inaxio Villar eta Asier Agirre. Batzuetan astun samarrak izango ginen, akaso, eta denbora galdu eragingo genizuen, baina gure azken helburua betiere gure lana ondo betetzea izan da. Eskerrik asko, erakutsi diguzuen gertutasunagatik, eta zorte on!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | 'http://goiena.net/iritzia/'



HANDIK ETA HEMENDIK

Tu quoque, Odon?

Joxe Aranzabal
http://goiena.net/blogak/faroa/

Donostiako alkate hogeituz urtez izanda, eta sinistuta berriro irabaziko zituela joan den igandeko hauteskundeak –beste askok ere horixe uste genuen–, Odon Elorza eskuzabal agertu zen donostiarren artean. Halaxe idatzi zuen bere blogean, *fair play* dotoreaz:

"Respeto a la lista mas votada por la ciudadanía, de manera que ya anuncio que no pactaré con nadie para quitar la Alcaldía al candidato-a de dicha lista. Solo aspiraré a la Alcaldía si somos la lista mas votada. Dudo que otros puedan decir lo mismo".

Atzo, berriz, eta behin hasierako ezustekoa igarota, ez zigun esan, bada, ezetz, goiko hori adierazi zuenean ez zela ari Bilduri buruz, artean Bildu legezatu barik baitzegoen, eta orain ahaleginak eta bost egingo dituela Bilduri alkatetza kentzeko, oso kezkatuta dagoelako Donostiaren etorkizunaz?

Twitter-en haserre galanta eta katxondeo latza eragin du Donostiako azken alkatearen txiribueletak. Ez da gutxiagorako. Nik, egia esan, ez nuen espero horrelako itsusikeria bere

partetik. Hala ere, egia baldin bada EAJK esan duena, uste dut bere zoria erabakita dagoela. *Alea jacta est.*

Aulkiak ahulki

Mikel Iturria
http://eibar.org/blogak/iturri/

Igandeko emaitzak direla eta ez direla.

Bilduk izandako emaitzak zirela eta ez zirela, igande gauean twitterreko nire horman pertsona bat hasi zen #nidonostiarra #niguipuzcoano hashtag-ak erabiltzen. Haserre bizian zegoen eta gaztelaniaz ari zen gizonari zerbait esatekotan egon nintzen. Azkenean, isilik geratzea erabaki nuen. Nola adierazi pertsona horri euskaraz kontrako esanahia zutela hashtag horiek?

[...]

Nire ustez, Paul Riosek dioen bezala Bilduri jende askok eman dio botoa ETaren amaiera laguntzeko. Ezker Abertzaleari esku bat bota diote Eusko Alkartasunak eta Alternatibak (pena Aralar ez igo izana tren horretara: goizegi da eta zauriak oraindik zabalik daude; espero dezagun egunen batean ixtea) eta ikusteko dago nola kudeatuko duen ezker abertzale

tradizionalak koalizioan duen hegemonia hori.

Ez dezala egin nire lagun baten patrioiak bezala: enpresak arazo ekonomikoak zituela, 90. hamarkadaren bukaera aldera, enpresaburuak dirua jartzeko eskatu zien langileei. Dirua jarri eta kooperatiba moduko bat bihurtu zen lantegia. Halako batean, gauzak hobeto zeudela aprobetxatuz, enpresa-gizonak, emaztearen zein semearen parteak erabiliz eta beste bi langilerekin akordioa lortuz, berriro bereganatu zuten enpresaren kontrol osoa.

Aipatu patrioiak baino errazago dauka betiko Ezker Abertzaleak Bildu kontrolatzea, baina jaso duen boto zaparrada hori ahalbidetu dutenek ez lukete ulertuko. Eta kontutan izan behar da botoak boto-emaleenak direla eta, bolada batez, alderdien esku egoten direla (nahiz eta alderdiek uste izan beraienak direla). Aulki dantzan *ahulkiak* dira nagusi.

Garai berriak ditugu mutur aurrean. Eta politika egiteko modu berriak behar ditugu. Asko du oraindik demostratzeko Bilduk. Pedagogia asko egin beharko du. Beldur asko uxatu.

Ez da erraza izango, baina ni itxaropentsu nago. Jakitun egoera ekonomikoa zaila dugula aurretik eta erronka handiak.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Inaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Itxaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER A
ARRASATE 20500:
Utalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com


Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 1577-1210
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Adierazpen askatasuna

Josu Aiaustui, Mikel Madinagoitia, Xabi Elorza eta Haritz Aranburu

(Antolaketa lanean ari diren herritarren izenean)
Oñati

Oñatiko herriari:

Salamanca Oñatiko gazte bati 4.000 euroko isuna jarri zioten Errealaren partidu batean euskal presoan aldeko bandera bat erakusteagatik. Isun horri aurre egin nahian bazkari eta kontzertu bat antolatzea bururatu zitzaigun Oñatiko hainbat gazteri, eta noski, ez dugu zalantzarik Gaztelekua dela era honetako ekimen bat aurrera ateratzeko tokirik egokiena, azpiegitura guztiak dituelako (eszenatokia, sarrera, barra, musika ekipoa, aterpea eguraldi txarra eginda ere...). Azken finean, dirua ateratzea denez helburua, diru eta lan asko aurreztuko lirakeke Gaztelekuan eginez gero.

Baina, noski, Udal honen arautegiaren arabera, Gaztelekuan ezin da alkoholik saldu, eta edariak sartu ahal diren ekimenetan, adin txikikoei sarrera debekatzeko zaie.

Hau ikusita, plazako pilotalekuan egitea besterik ez zaigu gelditzen, horrek dakartzan oztopoekin (eguraldiaren menpe egotea, eszenatokia jarri eta ingurua bailatu beharra, musika ekipoa osoa muntatzea, herritarrei sortuko zaizkien ezerosotasunak zarata dela-eta, gastuak gora...).

Gastuak ahal den guztia gutxitu nahian, Gaztelekuko musika ekipoa handia eskatu genuen, baina horri ere ezezkua eman digute (Gaztelekuko barne erabilpenerako soilik dela argudiatuz).

Honen aurrean garbi esan nahi dugu bai Gaztelekua eta bai Gaztelekuko musika ekipoa oñatiar guztionak direla, eta azken hiruzpalau urteetan ekipoa horrek izan duen erabilera txikia ikusita (15 aldiz 2008an, 6 aldiz 2009an, 6 aldiz 2010ean, eta momentuz bi aldiz 2011n), egindako inbertsioa diru galera itzela iruditzen zaigula, guztion poltsikotik ordaindutakoa.

Baina ez da hor amaitzen kontua. Izan ere, ekipoa handia ez utzita ere, diru-laguntza eskatu genuen ekipoaren alokairu gastuei aurre egin izateko, eta hori ere ukatu egin digute, norbanako bati laguntzeko ekitaldia izaki.

Bukatzeke, eta Udalaren erantzuna borobilduz, bazkarian 18 urtetik beherakoei alkoholodun edaririk eskainiko ez diegun idatzizko konpromisoa aurkeztea exijitzen zaigu. Noiz ikusi da halakorik? Zer insinuatu nahi da "eskaini" hitzarekin? Azken Herri Egunekeo bazkaria zela-eta, nork aurkeztu zuen halako idatzirik? Ze han bai eskaini zitzaieela alkohola adin txikikoei, Udal Kiroldegian, eta udal agintarien aurrean.

Honen guztiaren aurrean, gure protesta eta kexa adierazi nahi ditugu, eta oñatiarrei Udal honen kultur eta gazteen inguruko politiken inguruan hausnarketa bat eskatu nahi diegu.

Eduardo Zubiaurre eta maiatzaren lehena

Amagoia Lasagabaster (ELA)
Aretxabaleta

Eduardo Zubiaurre ADEGIko lehendakariak GOIENAn idatzitako artikulua izenburua hau zen: *Maiatzaren 1ak badu zentzurik?* Artikuluaren

hasieran, maiatzaren 1ko irudiak "gero eta zaharkituagoak" direla esaten zuen.

Zubiaurren galderari erantzungo diogu: Patronalarentzako maiatzaren lehenak ez du zentzurik, baina langile klasearentzako bai. Maiatzaren lehenean "Chicagoko martiriak" aurrera eramandako borroka gogorarazten dugu munduan milioika langilek. 1886an Chicagon eta Estatu Batuetan milaka langile irten ziren grebara, 8 orduko lanaldia eskatzeko. Patronalak polizia bidali zuen eta sorrarazi zuen sarraskiak oraindik gaur egun ezagutzen ez den hildako kopurua sortu zuen.

Munduan, esplotazio kapitalistak bere horretan jarraitzen du: umeen esplotazioa, sindikalisten erailketa, miseriazko soldatak, lanordu bukaezinak; hori, Eduardo, egunero gertatzen da mundu honetan. Eta Gipuzkoan zer gertatzen da? Desenplegua gora doa etengabe, eraikuntzan kanpotik ekartzen diren langileak lotsagabe esplotatzen dira, baita hemengoak ere. Lehen "mileurista" izatea arazo bat zen, orain subsidioa jasotzen duten "laureunista" ugari daude. Langileon dirua patronala

"erreskatatzeko" erabiltzen da (banka ere patronala da, Eduardo) eta ordainetan 67 urte arte lan egitera behartzen gaituzte. Zuk ordezkaten duzun patronala Europa mailan zerga gutxien ordaintzen duenatariko bat da. Hori, ordaintzen dutenek, noski. Beste askok, iruzur fiskalaz baliatuz, ez dute ezer ordaintzen-eta.

Langileoi lapurtzen dizkigute patronalak jasotzen dituen laguntzak eta, gainera, gure diruaz sostengatzen dugu gizarte. Munduan "modernitate" Emilio Botin, Diaz Ferran (zure lehendakari ohia), Sarkozy, Berlusconi edo Strauss-Kahn bezalako pertsonen ordezkaten badute, ohorea da guretzako "zaharkituak" egotea.

Maiatzaren lehenean langile klaseak gure aurretik borrokatu zutenak omentzen ditugu eta gure baloreak berretsi: aberastasunaren banaketa, pertsona guztien duintasuna, hezkuntza eta osasuna guztiontzat. Elkartzunean oinarritutako gizarte bat, finean.

Horregatik, Eduardo, ez duzu ulertzen maiatzaren lehenaren zentzua. Eskerrak milaka euskaldunek ulertzen dugula eta beste behin ere maiatzaren lehen Bilbon izan ginela.

Atal honetan argitaratzeko diren gutunak, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsunak barne) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

Orain Seat León TDI autoa

Aleaziozko llantak, bizona klimatizadorea, bluetooth, abiadura kontrolatzeko funtzioa, USB eta askoz ere gehiago,



15.000 € baino gutxiagogatik

0 km-ko autoa estreinatzeke

... edo Seat Exeo TSI autoa

Aleaziozko llantak, bizona klimatizadorea, bluetooth, argiaren eta euriaren sentsoreak, aparkatzeko atzeko sentsorea, abiadura kontrolatzeko funtzioa, USB eta askoz ere gehiago,



18.000 € baino gutxiagogatik

0 km-ko autoa estreinatzeke

AUTO KOPURU MUGATUA UDALAITZ

Gipuzkoa etorb. 36
ARRASATE
Tel. 943 711 870



ZINEMA

GOIENA TELEBISTA | TERTULIA | ZINEMA KONTUAK HIZPIDE

EKAINAK 1, 20:45 | TXOMIN MADINAK AURKEZTUA





Martin Garitano, Bildu koalizioak Gipuzkoako Diputaziorako aurkeztu duen ahaldun nagusigaia, Donostian, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

Martin Garitano | Bilduren ahaldun nagusigaia

"Apaltasunez eta zintzotasunez kudeatu nahi dugu Diputazioa"

EAJri ohartarazi dio Garitanok Gipuzkoako Diputazioaren gainean: "Partidua 22-14 galdu ostean txapela jantzi nahi badu..."

ENEKO AZKARATE | DONOSTIA

Asteko lehen egunak hedabideei erantzuten pasa ditu Martin Garitanok (Bergara, 1963). Oso pozik hartu gaitu Donostiako EAren egoitza nagusian. Han ikusi dugu Pello Urizar ere. Pozik hura ere. Ahaldun nagusi izateko prest dago Garitano eta Donostiako alkatezari ere ez diote ukorik egingo. **Ustekabea izan da halako emaitzak jaso izana?**

Egia esaten badizut, neurri batean bai, baina oso emaitza onak espero genituen. Ez ditugu inkestak egin, besteak beste eta batik batik dirurik ez geneukalako, baina ezagutzen genituen beste alderdi batzuek egindakoak. Eta bagenekien emaitza onak lortuko genituela. Zertan gauzatuko ziren, 22, 23, 19, 18... ez genekien. **Aldez aurretik argitaratutako inkestak eta emaitzak ez datoz bat.**

Azkeneko urteotan argitara eman izan diren inkestek sinesgarritasun guztia galdu dute. Ez dira egia ezagutzeko inkestak. Sukaldetik pasa ostean aurkeztu dizkiote jendarteari, efektu jakin bat sortzeko helburuarekin, ez egia edo errealitatea islatzeko.

20 urtez Donostiako alkate izan den Odon Elortzaren aurretik geratzea aurreikusten zenuten?

Oso zerrendaburu eta zerrenda ona aurkeztu genuen Donostian. Juan Carlos Izagirrek dohain asko

ditu. Bestalde, Donostia ezkerrekoa eta abertzalea zela bagenekien. Hori ze zenbakitan gauzatuko zen ez genekien, baina bai itxaropena lehen indarra izateko

Zergatik izan du horrenbeste boto Bilduk?

Bi elementu daude emaitzak ulertzeko: batetik, bazegoen egarri bat bozka emateko; izan ere, urte askoan, milaka eta milaka abertzale aurrerakoik ezin izan dute botorik eman. Bestetik, ziklo berri baten aurrean gaude, aldaketa dator, denbora berriak datoz eta horrek ilusioa sortu du. Gure esparru soziologikoa aldatuaz eta zabalduaz doala ikusi da. Aldaketak ilusioa sortu du.

Bilduk horrenbeste boto lortu izanagatik gertuago egon daitezke baka, ETAren desagerpena eta normalizazio politikoa?

Bai. Abian den prozesua elikatze-ko balio dute boto horiek. Prozesua gehiago elikatzen badugu eta sektore gehiago batzen baditugu prozesura, errazago egingo du aurrera. Une honetan, 314.000 boto ditugu prozesua elikatzeke.

ETAk, gainerako eragileek, Espainiako Gobernuak, Estatuak... aintzat hartuko dituzte hauteskundeetako emaitzak?

Bai, ez daukat zalantzarik. Hauteskundeetako emaitzak hor daude. Egiazkoak dira. Hego Euskal Herriko euskaldunok zer nahi

dugun argi geratu da eta zati handi batek Bilduren proposamenekin bat egiten du.

Zela kudeatu boto zaparrada hau?

Erraz. Askoz ere zailagoa da porrota kudeatzea. Oposizioa gogorragoa da. Apaltasunez eta zintzotasunez kudeatuko ditugu udalak eta Gipuzkoako Diputazioa, lortzen badugu. Bildu osatzen dugunok tradizio ezberdinetik gatoz eta erakutsi dugu kudeaketarako gaitasuna daukagula.

Ikusten duzu zure burua ahaldun nagusi?

Hori ez da garrantzitsuena, Martin Garitano egotea ala ez egotea, baizik eta gipuzkoarrok, hein handi baten, Bilduri eman diotela bozka. 22 eserleku dauzkagu; bigarrenak, EAJk, Markel Olano buru duela, 14 dauzka; eta alderdi sozialistak, 10. Gipuzkoarron borondatea zein den argi geratu da. Beste norbaitek partidua 22-14 galdu ostean txapela jantzi nahi badu...

Zertarako erabili nahi dituzue boto hauek guztiak?

Bi oinarri sendo ditugu gure egitasmoan: batetik, pobrezia ezabatzea. Langabeziari aurre egitea. Langabe batzuk nahi ditugu, bizkartzainak, ez besterik. Horretarako, Foru Aldundiak dauzkan tresnak erabili nahi ditugu. Esaterako, ogasuna eta zerga politika. Hori oinarri bat da. Bestea: nor-

malizaziorako bidean, erakundeak tresna garrantzitsu bihurtzea eta, horretarako, udalak eta Diputazioa garrantzitsuak dira.

Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako alkatetza gobernatzeko eta gidatzeko prest zaude?

Bai, argi eta garbi. Horretarako aurkeztu ginen.

Itunak egin beharko dituzue.

Bai. Politikan itunak egitea eguneroko ogia da. Erabateko gehien- goen kasuan bakarrik ez dira behar, eta ez zaizkigu asko gustatzen.

Zeinekin egin dezakezue ituna?

Mahaiaren gainean jarri behar ditugu bai geuk eta bai besteek bakoitzaren lehentasunak. Horiek gurutzatuz ikusiko dugu zeinekin den posible eta zeinekin ez. Aipatzen da Abiadura Handiko Trena.

"Zailagoa da porrota kudeatzea; oposizioa gogorragoa da"

"Pasaiko kanpo badia? Errenterian, Lezon, Pasaian Bilduk irabazi du"

Eta zera esan nahi dut: horren gaineko erabakirik ez dagokio Aldundiari, Jaurleari eta Espainiako Gobernuari baizik; hortaz, hori ez da traba izango.

Pasaiko kanpoko badia?

Horren gainean ere berba egin da. Horren aurka gaude, Pasaia ez diolako ekarpenik egiten, ekonomikoki. Gainera, ingurumenaren aldetik ez da bideragarria. Ez dugu geuk esaten, Espainiako Gobernuak dio hori. Alde horretatik ere, arazorik ez.

Zaborren kudeaketa?

Planteatzen dugu luzamendu bat eta eztabaida eta informazioa zabaltzea gaiaren gainean. Herriarrek erabaki dezatela ondoren. Nahiz eta batzuek errauskailuaren alde egin, uste dugu bost urtetan hurbiltze bat egon daitekeela. Horretaz egin behar dugu berba.

Sozialistek esan dute ez dutela Bildurekin berba egingo itunak egiteko. PPK ere berdin. Jeltzaleak dira aukera bakarra?

Bai, baina badago beste aukera bat, gutxiengoan gobernatzea. Agian, aukerarik errealena.

Jose Antonio Pastor sozialisten bozeramaileak esan du Bildurekin ez dela batuko.

Pastorrek Bizkaian egiten du politika. Buenek, Eigurenek eta Elortzak Gipuzkoan. Haien arazo zehatza daukate Gipuzkoan eta Donostian.

Jeltzaleek eta sozialistek euren artean adostasun handiagoa dute Gipuzkoako hainbat proiekturi dago-kienez.

Bai, baina horiek ikusi beharko lukete Pasaian, Errenterian eta Lezon Bilduk irabazi duela. Bertako biztanleak proiektu horien aurka daudela. Eta herritarrei entzun behar zaie. Ez du balio goi mailako batzarretan, enpresaburu edo enpresa erakitzailerik batzuei men egitearren, herritarren aurkako erabakiak hartzea.

Bildu prest da sozialistei edo jeltzaleei Donostiako alkatetza emateko Gipuzkoako Diputazioaren truke?

Ez, ez, ez. Politika egiteko beste estilo bat daukagu. Printzipioak ditugu.

Posible ikusten duzu EAJren eta PSE-EEren arteko itunak?

Posible da, baina EAJk bere hautesleei saldu dien mezua izan da sozialistek eta popularrek burdinazko hitzarmena egina dutela abertzaleak erakundeetatik kanpo uzteko. Hortaz, geuk 22 batzarkide izan eta jeltzaleek 14 edukita, Bildu baztertzeko estrategia bultzatzen badute, hautesleei azalpenak eman beharko dizkiete.

"Normalizaziorako bidean, erakundeak tresna garrantzitsu bihurtu nahi ditugu"

"Ez gaude prest Donostia emateko Diputazioaren trukean"

NISSAN GAURSA, kontzesionario ofizial berria Eibarren

Eibarren zabalduko instalazio berriarekin, Gipuzkoara iritsi automobilgintzan ibilbide luzea duen Gaurisa taldea. Nissan etxea kontzesionario ofizial moduan ezagutarazteko asmoa du horrek.

Nortasun seinale moduan zerbitzu bokazioa duena, **Nissan Gaurisa**k giza talde esperientziaduna eta ibilgailuen konpontze eta mantenerako bitarteko tekniko aurreratuenak dituen instalazioa jarri du martxan.

Eibarko Otaola etorbidetan dagoen kontzesionarioak 1.000 metro karratu

inguru ditu; ibilgailuen erakusketarako eta mantenu eta konpontze zerbitzua eskaintzen duen tailer mekanikorako erabili dituzte horiek.

Karrozeriako zerbitzu ofiziala ere eskaintzen dute, harrera eta ibilgailuen entregatzea instalazioan bertan egingo direlarik.

Horretaz gain, Gaurisa taldearen barruan dagoen Beste Alde Rent a Car enpresaren bidez, Nissan Gaurisak gidaririk gabeko ibilgailuen alokairua eskaintzen du, 100 baino gehiagokoa izanik turismo eta furgoneten aldra.



NISSAN gama

Historikoki Nissan 4x4 ibilgailuengatik izan da ezaguna, gaur egun, X-trail, Pathfinder eta Navara nabarmenduz. Azken urteotan marka dibertsifikatu egin da, eta tinko zehaztuta dauden merkatu nitxoak aprobetxatu ditu. Pixo, Micra, Note eta Cube bezalako City Cars-etaz ari gara, kontsumo murriztua daukatenak, eta hiri erabilerarako oso praktikoak direnak; baita NV200 eta Primastar ibilgailu komertzialetaz, edo 370Z deportiboaz. Azken hau Eibarko ins-

talazio berrian dago ikusgai.

Baina Crossover gama eta bereziki Qashqai modelo dira Nissan etxeraen ikurra, hau, aintzindaria izan delarik segmentu honetan. Azken hilabeteotan salmentetan liderra izan eta hainbat sari jaso ditu, horien artean segurtasun neurri dagoen EuroNcap 5 izarrak. Segmentu berean, irten berria den Juke aurkituko dugu, ibilgailuen kategoria berri bat zabaltzen duena: Crossover txikiena.



NISSAN GAURISA ESPAZIO BERRIA EIBARREN



SHIFT...the way you move



49€ -TIK HASITAKO OLIO GEHI IRAGAZKI ALDAKETA BATI.

Bakarrik Nissan Gaurisan.
Salmenta eta saldu osteko zerbitzurik onena.

NISSAN GAURISA

Avenida Otaola, 22 - 20600 Eibar - Gipuzkoa - tel. 943 820 974

DUELA 10 URTE

2001-05-18

Eroski eta Once elkarrekin

Eroski taldeak eta Once erakundeak hitzarmena sinatu zuten. Horren arabera, txirringulari taldeak Eroskiren publizitatea izango zuten. Akordioaren xehetasunak isilpean geratu baziren ere, 1.600 milioi pezetako akordioa izan zela entzun zen.

Urte hartan, tropeleko talde indartsuena bezala aurkeztu zuten eta taldeko hiru izar nagusiak Abraham Olano, Joseba Beloki eta Igor Gonzalez de Galdeano izan ziren.



Eroski-Once taldearen maillot berria. | GOIENA

2001-05-18

Aldaiko 650 gorpuzki atera zituzten

Aldaiko hilerriko nitxoetan 1990eko abenduaren 31 baino lehen ehortzitako gorpuzkiak aterako zituela iragarri zuen Udalak.

Lanek urriaren lean hasi eta bi hilabete iraun zuten; gutxi gorabehera, 650 gorpuzki atera zituen Udalak. Gorpuak atera eta handik hiru hilabetera familiak erreklamatu gabe geratu ziren gorpuzkiak San Kristobal hilerriko hezurtegitira eraman ziren.

DUELA 5 URTE

2006-05-19

Ferixalekuko igogailua

Hondarribia eta Obenerreka kaleak Makatzenarekin lortuko zituen igogailuaren trazatua onartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrrak. Onartutakoaren arabera, igogailuak bi geraleku izango zituen eta inklinatutako igogailu bat jartzea onartu zen.

Igogailuak Jose Luis Iñarra kalearekin lotura izango zuten.

ARRASATE

HERRITARRAK

Jose Mari Balantzategi 'Aizkora' Udaleko paper pila handi baten atzean ezkutatu arren, herri guztiak daki non egiten duen lan. Aizkorari, 62 urte dituen arren, 18 urteko gazte baten bizipoza dario. | IMANOL GALLEGO

"Badaezpada, Franco hil zen egunean udaletxean ez genuen festarik egin"

Larra idazleak ez zuen horrelako funtzionario bat ezagutu. Jose Mari Balantzategik ez dizu inoiz bihar bueltatzeko esango. Urteetan haren irribarrea Arrasateko Udalaren aurpegia izan da. Orain, BAZ sortu zenetik lasaiago dabil dekretu, lege eta idatzen artean galduta. Hala ere, haren ahotsa udaletxean nagusi den isiltasunean erraz antzematen den horietako bat da.

Zenbat urte daramatzazu udaletxean?

Kontuak atera, 1970. urtean sartu nintzen... Agudo esaten da urte hori, baina ni hona ile beltza nuela sartu nintzen.

Beti izan zara funtzionario?

Ez, ez. Jende askok hori uste badu ere, udaletxera iritsi aurretik tailer baten egun nintzen bost urtez. Baina erodutik hona udaletxean aritu naiz, azken 40 urteetan hemen gertatu den guztiaren lekuko izan naiz. Nire lanpostuko leihoa zabaldu eta guztiaz jabetzen nintzen.

Diktaduratik demokraziarako saltoa ere bizi izan zenuen.

Salto ederra, gainera; dena den, ez zen egun batetik besterako zerbait izan. Diktaduran, udaletxea oso iluna eta zaharkitua zegoen; kolore beltza nagusi zen. Bitxikeria gisa kontatuko dizut lankide batek kaxoi baten sagu bat zuela eta jatekoa ere ekartzen ziola. Hura panorama!

Udaletxean festa egin zenuten Franco hil zenean?

Ez zen festarik egin, ez genekien -eta zer gertatuko zen. Nik ez neukan kartzelan bukatzeko gogorik! Ikurrina legeztatu zen eguna, berriz... hura bai izan zen festa handia! Jendeak egun hartan festa handia egin zuen.

Zenbat alkate pasa dira hemendik zu zaudenetik?

Uf... askotxo. Lehena diktadurak aukeratutakoa zen; gero, demo-



Jose Mari Balantzategi, udaletxeko eskaileretan. | IMANOL GALLEGO

"Informatika ikastea kostatu egin zait, baina abantaila mordoia ditu"

"BAZek lana erraztu dit, baina askok hori uste badute ere, ez naiz erretiratu"

krazian... Ardantza, Txiron, Loiti, Lakuntza, Ino eta orain, berriaren zain gaude. Bost alkate aipatu besterik ez dudan arren, Txiron-ek agintaldi bat baino gehiago egin zuen hemen, baina, esan bezala, alkate guztiak ezagutu ditut.

Eurekin harremanik izaten duzu?

Nik ez dut politikariek lan egiten. Baina inoiz paperen bat eskatzera etorri izan dira eta askorekin harreman ona dut, baina nik ez dut politikariek zuzenean lan egiten. Dena den, hau etxe txikia da eta guztiok gara ezagunak.

Zein izan da udaletxe honetan gogoratzen duzun momenturik estuena?

Txiron-ek jasan zuen mozioan urduritasun momentu ugari bizi izan ziren. Mozioa osoko bilkuren aretoan egin bazen ere, guk dokumentuari sarrera eman behar genion, eta, momentu hartan,

hemen zegoen klima ez zen lasaia, ez. Denok dakigun moduan, mozio haren ostean Loitik eskuratu zuen alkatetzatza.

Jendeak udal kontuez galdera asko egiten dizkizu?

Mordoia. Kaletik noanean jendeak gelditu egiten nau eta galderak egiten dizkit. Egia esan, BAZ zabaldu zenetik jendeak uste du erretiratu egin naizela eta galdera gutxiago egiten dizkit, baina ez da egia, hemen nago! Hiru urte falta zaizkit erretiratzeko!

Lasaiago, baina informatizatuago, ezta?

Ba, bai, eta ez da erraza izan. Askok kosta zitzaidan, baina gaur egun nire buruaz baino gehiago tramankulu honetaz fidatzen naiz. Etxean beste bat erosi dut, eta, noizean behin, trakets samar baina nabigatzen dut.

Jendeak nola deitzen dizu?

Gehienek Aizkora edo Aizkorita, baina 62 urte ditudala kontuan

NIRE HERRIAN

OINEZKOENAKO BIDEAK

Azken urteotan askotan irteten naiz herritik bueltatxo bat ematera, eta oinezkoentzat atondu dituzten bideak oso ongi daudela iruditzen zait. Urte gutxian asko egin dituzte eta autorik gabe paseatzeko aukera ematen dute. Zenbait kasutan, herrigune barruan ere zenbait zirkuitu egiteko aukera dago.

HERRIKO PARETEN ITXURA

Arrasatek eraikin polit asko ditu, baina, askotan, gehiegitan esango nuke, grafiti, poster eta bestelako gauza mordoia pilatzen dira, hori penagarria da. Herriak zikin itxura ematen du, pareta guztiak pintada, grafiti eta kartelez beteta baitaude. Jartzen dituzten horiek gero kendu egin beharko lituzkete.

izanda... Aizkora zuzenagoa dela uste dut.

Semeak eta alabak ezizen hori jaso dute?

Ez, eurek ez dute nire ezizena erabiltzen. Bueno, noiz edo noiz, erreferentzia gisa, Aizkora-ren semeak direla diote, baina ez dute gaitzitzen propio moduan erabiltzen.

Egia da funtzionarioek hiru aldiz gosaltzen duela?

Gurea ez da bizitza erraza, baina gosaltzeko beti tartetxo bat ateratzen dugu. Hiru aldiz akaso gehiegitxo da, baina tira... noiz edo noiz, mokadutxo bat jaten dugunik ezin dezaket ukatu.

Akaso, turismo liburuetan funtzionarioek egindako kritika gastronomikoak agertu beharko liriteke.

[Barre]. Ez dakit ba... Orain ez dizut izenik emango, baina Arrasateko erdialdean taberna onak ditugu, eta askotan oso gosari goxoak ematen dituzte. [Barre]

HERRIAK

LEINTZ GATZAGA

Gurel elkarteak, beste kultura batzuk gerturatzen

- ▶ Senegalen gaineko berbaldia gaur; Bosniaren gainekoa ekainaren 10ean
- ▶ Arrazoi ezberdinengatik gurera etorritakoen testigantzak jasoko dituzte

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Udari ongiatorria emateko asmoz hainbat ekintza antolatu ditu Gatzagako Gurel guraso elkarteak. Ekintza guztiek ondo pasatzeko helburua badute ere, hausnaritzeko eta ikasteko tartea ere izango da.

Kultura ezberdinak ezagutu

Antolatutako artean hitzaldiak daude: gaur Senegalen gainekoa eta ekainaren 10ean Bosniaren gainekoa. Gabon inguruan egin zuten lehenengoa, Ekuadorren gainekoa. "Helburua zen umeei munduko herrialdeak, berdintasuna, toki bakoitzeko beharrak... erakustea. Eta ohartu ginen Gatzagan bertan bageneukala adibide bat bertako txikienei erakusteko, Ekuadortik etorritako familia", dio Dorleta Elkorobarrutiak, antolatzaileetako batek: "Ondoren, Gatzagara eguenetan diskoak saltzera etortzen den Alladhi senegaldarrarekin egin nuen berba; ezaguna da herrian eta haren historia ere oso interesgarria da. Eta, azkenik, ezagunak ditudan bosniarrekin geratu naiz".

Berbaldiak –bai Senegalen gainekoa, bai Bosniaren gainekoa– hiru ataletan banatu dituzte: herriko ume txikienei, 6 urte bitartekoek, emango diote hasiera; gero, 13 urtekoek herrialdearen gaineko datu orokorrak eta argibideak emango dituzte ikus-entzunezkoa eskainita; azkenean, gonbidatuek euren testigantza eskainiko dute: bizimodua, Euskal Herrira etortzeko arrazoiak, zelan etorri ziren, zelako harreara egin dieten...



Gureleko neska-mutikoak gurasoekin batera iaz maiatzean Atxorrotzen. | GUREL

Hala, bada, hiru kontinentetako, hiru herrialdeetatik etorritako lagunen bizipenak ezagutuko dituzte gatzagarrek; tartean, kultura, ohitura eta bizimodua, baita gurera etortzeko izan dituzten arrazoiak ere. "Batzuk lan bila etorri ziren gero familia ekartzeko; beste batzuk gerraren ondorioz daude gure artean; eta badaude nolabait etortzea lortu dutenak ere, baina ez daukatenak familia ekartzeko aukerarik", dio Elkorobarrutiak.

Eta argitu du helduek ere badutela zer ikasia: "Umeei erakutsi gura genien beste herri batzuetako errealitatea, baina ohartu gara geuk, helduok, ere asko daukagula ikusi, entzun eta ikasteko".

EGITARAUA

MAIATZAK 27

- ▶ Senegalen gaineko berbaldia kultura etxean (19:00).

EKAINAK 3

- ▶ Kontzertua kultura etxean (18:00).

EKAINAK 4 ETA 5

- ▶ Irteera Angostoko kanpinera.

EKAINAK 10

- ▶ Bosniaren gaineko berbaldia kultura etxean (19:00).

Kontzertua eta irteera

Hitzaldiak ez dira udara begira antolatutako ekitaldi bakarrak. Hurrengo egubakoitzean, ekainak 3, kontzertua eskainiko dute hainbat gazte kultura etxean (18:00). Kanpotik etorriko dira, baina herriko musikariak ere gonbidatu dituzte ekitaldira.

Eta ekainaren 4an eta 5ean irteera egingo dute Angostoko kanpinera (Araba). 27 bat lagunek eman dute izena eta aste bukarrera pasa polita izango delakoan daude: "Ez dugu aurrez ezer antolatuta, baina seguru asko txangoak egingo ditugu, bizikletan irteerak, jolasak txikienekin, futbol partidak gazteekin...", jakinarazi du Imanol Saez de Viterik, Gureleko batzordeko kideak.

IMANOL SAEZ DE VITERI
GURELEKO KIDEA

"Aurtengo udalekuak geuk zuzenean antolatu eta egingo ditugu"

Gureleko batzordean sartu berri da, eta Angel, Alberto eta Ainhoarekin batera osatu du zuzendaritza taldea.

Karguak banatu dituzue?

Ez; lanak banatzen ditugu gure artean, baina ez dugu kargurik izendatuta.

Ekintza asko antolatu dituzue datozen asteotarako.

Bai; berbaldiak, kontzertua, irteera... Jendea animatuko dugulakoan gaude.

Ludoteka oraindik zabalik dago, ezta?

Bai, eskolako ikasturtea bukatu bitartean jarraituko du.

Eta uztailean udalekuak antolatu dituzue?

Bai, baina ez orain arte bezalakoak: egunero, ordu-tegi zehatzarekin... Geuk antolatutako ekintzak egingo ditugu: irteerak, jolasak... Antolatzaileontzat lan handiagoa da, baina hala egin gura dugu aurrean. Gero ikusiko dugu zelan ateratzen den.

Gainera, oso adin ezberdinetakoendako antolatu behar Gatzagan.

Bai; ume txikiak daude, batetik, eta gazteak, bestetik. Gazteekin bilerak egin ditugu eta euren proposamenak erantzuteko gertu gaude, ahal dugun neurrian: piraguan irteerak, kanpaldiak...



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

AURREMATRIKULA: Ekainaren 1etik 10era.

Ibargarai, 1
20570 Bergara
943 76 38 40/943 76 24 91

Ordutegia
08:00etatik 14:30etara
15:30etatik 19:00etara

www.imaltuna.com
imaltuna@sarenet.es



Presoen aldeko ekimenen berri eman, eta azken debekua salatu

Gaur, hileko azken egubakoitza, Herriko Plazan elkartuko dira, 19:30ean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Maiatzaren 7ko biziarteko kartzela zigorraren kontrako manifestazioa deitu zuten Arrasateko eta Aramaioko eragileek salatu egin dute protesta hari jarri zioten debekua; Ertzaintzak izandako jarrera gogor salatu zuten martitzenean Kulturaten egindako agerraldian.

Horrez gain, gaur, egubakoitza, euskal preso eskubideen aldeko Azken Ostiraleko bilkuran parte hartzea animatu zituzten herritarrak. Hilero moduan, Herriko Plazan izango da elkarretaratzea, 19:30ean.

Konponbiderako aukerak

Eragileek adierazi zuten "errepresio ororen gainetik" preso eskubideen defentsan jarraituko dutela. Hala, besteak beste, preso Euskal Herriratzea aldarrikatzen duen maindirea ahal



Maiatzaren 7ko manifestazioko deitzaileen agerraldia, martitzenean. | JULEN IRIONDO

beste lekutan jartzera deitu dituzte herritarrak. Espainia eta Frantzia konponbide demokratikoaren bidean aukerak aprobetxatzera eta urratsak ematera deitu zituzten; preso eskubideak errespetatzera, besteak beste. Euskal

presoekiko espetxe politika edozein egoeratan "onartezina" dela, baina orain "are okerragoa" dela adierazi zuten, eta dei egin zieten herritarrei preso eskubideen aldeko aldarrikapenean jarrai dezaten.



Bildu, ia auzo guztietan garaile

J.B. | ARRASATE

Asteleheneko *Goiena* paperean iragarri genuen moduan, Bilduk gehiengo osoa lortu zuen Arrasaten domekako udal eta foru hauteskundeetan. Hala ere, koalizio buru Inazio Azkarraga-Urizarrek inor baztertu barik gobernatuko dutela adierazi du asteon Arrasate Irratian.

Santa Marina, salbuespena

Bestalde, Arrasateko hauteskunde-gune ia guztietan izan da garaile Bildu. Santa Marina izan da salbuespena: han PSE-EEk ia Bilduren bozkak bikoiztu ditu -230 Bilduk eta 432 alderdi sozialistak-. Oro har, EAJk eta Aralarrek gora egin dute botoetan; gainerakoek, berriz, behera.

EMAITZAK SEI HAUTESKUNDE-GUNEETAN

	ERDIGUNEA	SANTAMARINA	MUSAKOLA	SAN ANDRES	URIBARRI	AUZOAK	GUZTIRA
Bildu	2.099	230	654	466	1.142	135	4.726
EAJ	1.003	92	227	248	485	59	2.114
PSE-EE	345	432	233	363	515	15	1.903
Aralar	392	18	63	90	183	25	771
PP	175	121	74	165	194	19	748
EB-Berdeak	127	92	65	29	96	3	412
Zuriak	55	21	15	27	42	6	166
Balioga.	31	6	15	16	28	2	98
Hautesleak	6.032	1.925	2.072	2.418	4.450	730	17.897
Boto kop.	4.227	1.012	1.346	1.404	2.685	264	10.938

Nobedadez jositako Garagardo jai luzeagoa gaur hasita, 13. edizioan

J.B. | ARRASATE

Arrasate Errugbi Taldearen -ART- Garagardo jai bi asteburuko izango da aurten. 13 urte beteko ditu. Ezin da ahaztu errugbi taldearen urteko aurrekontuaren zati handiena garagardo jaiaren menpe dagoela eta horregatik erabaki dute egun gehiagotan

karpa zabalik izatea. Gaur, poker txapelketa; bihar, errugbian aritu direnen eta aritu gura dutenendako bazkaria, txahal bat erretzea eta futboleko Txapeldunen Ligako finala pantaila erraldoian; eta etzi, azkenik, mus txapelketa. ARTren kamiseta berriak salgai izango dira edonorendako.



Garagardoa, protagonista. | ARTXIBOA

Iturripen egingo du jai Arrasate Herri Eskolak ekainaren 2an

Arrasate Herri Eskolak ikasturte amaierako jai antolatuko du ekainaren 2rako. Musika, antzerkia, jokoak, puzgarriak eta disko festa izango dira, besteak beste. Iturripen kiroldegian izango da festa aurten, Erguingo ikastetxean obrak hastear direlako.

Benda eta Kinesio Tape ikastaroa bihar Arizmendiren eskutik

Arizmendi Ikastolak bendaje funtzionala eta Kinesio Tape deritzon ikastaroa antolatuko du biharko. 09:00etatik 14:00etara orkatilan, belaunean, eskuan eta bizkarrean bendak nola jarri eta Kinesio Tape metodoa nola erabili azalduko du Andoni Carrasco terapeuta Ferixalekuan.

Eskerrik asko eta zorionak denoi!



bildu
arrasate



bildu

www.bildu.info

LA REVISTA
EUSKAL HERRIA
ALDIZKARIAK AURKEZTEN DU

Mundumira

La fiesta de las culturas del mundo Munduko kulturen festa

ELGETA . DEBAGOIENA

Maiatzak 27, 28, 29 mayo 2011

LOS DELINQUENTES

JEREZ DE LA FRONTERA

Dub Inc FRANCIA

The Billie Jeans EUSKAL HERRIA

Habana con Kola CUBA

Mery May + AIN_1 ARRASATE

Andrakan EUSKAL HERRIA

Kukubiltxo EUSKAL HERRIA

La Troba Kung-Fú CATALUNYA

Jorginho MÚSICA BRASILEÑA

Moya Kalongo MOZAMBIQUE


Oreindik EUSKAL HERRIA

EH-ko BOULDER Txapelketa

NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN AZOKA, UMEEN GUNEA, KALE ANIMAZIOA, ARTISAUTZA ETA MUNDUKO ZAPOREAK, ELKARTASUN FOROA...

www.mundumirafesta.com - 902 18 14 71

<p>ANTOLATZAILEAK</p> <p>www.euskalherria.aldizkaria.com</p>	<p>BABESLE NAGUSIAK</p>	<p>BABESLEAK</p>	<p>KOLABORATZAILEAK</p>
---	--------------------------------	-------------------------	--------------------------------



Illart Etxeberria. | GOIENA



Ekain Garin. | GOIENA



Iker Laspiur. | GOIENA



Jon Loiti. | GOIENA



Jon Muruamendiaratz. | GOIENA

Hernaniren kontrako azkena agurren partidua izango da

Mondrako beteranoek futbola utziko dute bihar

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Hernaniko ordezkariek adierazi dute Mondraren kontrako partidua irabazi egingo dutela, sailkapenari begira zuri-moreek ezer ez dutelako jokoan. Bada, jai dute, Arrasatekoendako ligako azken partidua berezia izango delako.

Norgehiagoka hunkigarria izango da biharkoa (18:00, Mojategi): batetik, Mondraren elastikoa urtetan –kategoria txikietatik hasita– defendatzen ibili diren

hainbat jokalariek futbola uztea erabaki dutelako; eta bestetik, Arrasateko taldeko zale fidelentako bat hil zelako zapatuan, Jaime Lopez.

Hala, jokalariek garaipena eskaini nahi izango diote horrenbeste urtean Arrasateko taldea jarraitu duen Iker Lopez jokalarriaren aita zenari; eta taldea utziko dutenek ere irabaziz amaitu nahi dute futbol ibilbidea: "Ahaleginduko gara guztiak zelai-

ratzen, baina ez da erraza izango, taldea utziko duten asko defentsak direlako", adierazi digu aste barruan Iban Rodriguez entrenatzaileak.

Hutsune handia

Datorren denboralditik aurrera Mojategin ikusle moduan egongo dira Mondran horrenbeste urtean egon diren Iker Laspiur, Jon Muruamendiaratz, Illart Etxeberria, Ekain Garin eta Jon Loiti

jokalaria. Eurekin batera futbola utziko dute, baita ere, azken urteotan lehen taldean egon diren Iban Roak eta Enrique Tenak. Zapatuko kontrario Hernanik, bestalde, asko du jokoan: hirugarren mailara bidean sailkapenean lehenengo postuan amaitu nahi dute, eta huts eginez gero Real Unioneke aurre hartuko die.

Badator errelebia

Horrenbeste, datorren denboraldian hutsune handiak izango ditu Mondrak, baina taldeko entrenatzaileak garbi du bada-goela errelebia: "Horretarako egingo dugu lan. Azken hilabeteotan gazteekin jokatzeko ibili gara, eta itxura ona hartu diet. Horrekin batera, erregionalean aprobeatzeko moduko jokala-

riren bat edo beste ere badago, eta garbi dago kanpotik lauzpabost jokalaria ere ekarri beharko ditugula". Hala, beteranotasunaren faltari aurre egiteko Rodriguezek gazteek duten txispa azpimarratu du: "Beteranoz betetako kategoria da hau, baina gazteak azkarragoak dira.



Jaime Lopez. | GOIENA



DRAGOI TALDEA

Lan ona eskola artekoan

Arrasateko gimnastak Gipuzkoako eskola arteko txapelketan izan dira, eta baita udaberrikoan ere. Eta bi txapelketetan lan ona egin dute. Eskola artekoan, taldeka, podiumera igo ziren infantil mailan. Argazkian: Ainhoa Aranburu, Irene Errarte, Garazi Ibarondo, Amaier Mendizabal eta Eider Lopez garaikurrarekin.

Malen Ruiz lehenengo Anoetan eta Jonathan Perez bigarren Alacanten

X.U. | ARRASATE

Oraingo asteburuan Arrasateko atletak batera eta bestera ibili dira, hainbat txapelketatan esku hartzen. Beste behin, azpimarratzekoak dira pertika jauzilariek egindako markak, baina emaitza on gehiago egon dira.

Malen Ruiz de Azuak, Irungo Bidasoarekin, 3,40 metroko saltoa egin zuen Anoetan, lehenengo sailkatuta. Jonathan Perez, berriz, Alacanten izan zen Realarekin, eta bigarren sailkatu zen 4,50 metroko saltoa eginda. Maialen Axpek Iruñera joan behar izan zuen Atletico San Sebastianekin, eta zortzigarren postuarekin kon-

formatu behar izan zuen (3,50 metro). Azkenik, Anoetan ere, Alba Etxeandia 2,40 metroko markarekin seigarren postuan sailkatu zen.

Arrasateko errekorra Blancok

Valladoliden, berriz, aipatzekoa da Markel Blancok 800 metroko lasterketan egindako marka (1.55.13). Bidasoako taldeko elastikoarekin korrituta Arrasateko bigarren sailkatu zen marka horrekin, eta gainera, Arrasateko errekorra ondu zuen. Blancoarekin batera, Iñigo Urribarren eta Chen Yan ere Valladoliden izan ziren lehian.

Faboritoak ez dira Zaldibarko finalean egongo

X.U. | ARRASATE

Ekainaren 4an jokatu dute Zaldibarko finala, eta Cipris eta McAwenDauen izango dira zein baino zein gehiago denboraldiko partidu erabakigarriak. Hala, finalerdietan hainbat ezuste egon ziren, izan ere, faboritoek ez zuten aurrera egin. Bazirudien aurretik ere Dribling eta Lasagabaster finalean egongo zirela, iaz gertatu moduan, baina kanporaketan ez zuten asmatu, eta hilaren 4an hirugarren postuagatik lehiatu beharko dira.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

PUB HAIZEA



Restaurante
UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Plastikozko poltsekin sortutako mundu magikoa

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Haurrei zuzendutako antzerkia eskainiko du Kolore Bitxia taldeak bihar, zapatua, Amaia antzokian. Bi saio egingo dituzte, lehenengoa 17:00etan eta bigarrena 18:00etan. *Mondo Flurss* antzezlanarekin gaur egungo kontsumo ereduaren gainean hausnarketa eragingo dute aktoreek.

Testurik gabeko lana

Lan ikusgarria da *Mondo Flurss* antzezlan. Aritza Rodriguez eta Iñaki Aginaga aktoreek parte hartzen dute lanean. Testurik gabeko antzezlan da. Bi aktoreek zaborretarako poltsak manipulatzen dituzte, paisaia, animalia eta objektu ezberdinak eginez

modu irudimentsuan. Gainera, gaur egungo kontsumo ereduarekin jarraitzen badugu gerta dakigukeenari buruzko hausnarketa txiki eta apala egiten da antzezlanean.

'Flurss, flurss...' soinua da

Flurss, flurss... plastikoaren soinua, bata bestearen kontra jo eta bizia hartzen duten poltsen soinua da. 3 eta 5 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago.

Antzezlanaren asmoa da haurrekin sormena eta sostengarritasuna lantzea; horregatik, eskolan lan egiten jarraitzeko aukera eskaintzen dute antzezlanerako bereziki prestatu dituzten unitatea didaktikoen bitartez.



Seber Altube, literatura plaza

AEDk antolatutako Literaturjauziak ekimenaren barruan herri irakurraldia egin zuten Seber Altube plazan eguaztenean; hala, literatura plaza bilakatu zuten Seber. Herriko 40 lagun oholta gainera igo ziren eta testu zati bana irakurri zuten, hiru minutu ingurukoak. Gainera, Zahar Berriko lagunek bigarren eskuko CD eta liburu azoka egin zuten plazan bertan.

'Kooltur ostegunak' ekimenaren azkeneko saioan Kerobia taldeak jardungo du gaztetxean

Datorren ekainaren 2an Kerobia talde nafarrak kontzertua eskainiko du gaztetxean. 22:00etan izango da eta sarrera 5 euro kostako da. *Kooltur ostegunak* ekimenaren barruan antolatutako kontzertua izango da; datorren egunekoa izango da denboraldi-ko azkeneko kontzertua. Uda partean kontzertuak etetea erabaki dute, baina ekimenak jarraipena izango du irailetik aurrera. Dagoeneko sei lan argitaratu dituzte Kerobia nafarrek; azkena, 2010ean argitaratu zuten: *Ontziak*. Azken diskoko abestiak eta euren betiko abestiak eskainiko dituzte gaztetxean.

Musika 'zoroa' eta garage doinuak bihar gaztetxean

A.E. | ARRASATE

Bakioko Seizoro eta The Killministers taldeek joko dute bihar, zapatua, Arrasateko gaztetxean. 23:00etan hasiko da kontzertua.

Seizoro taldea 2010ean sortutakoa da. Pop korearra egiten dute bizkaitarrek. Taldea sei lagunek osatzen dute: Borja, Jon Larrazabal, Xabier Badillo, Aitor Uriarte, Ioritz eta Jon Olabarrietak. Taldeko abeslari nagusiak bi dira: Ioritz eta Jon Olabarrieta. Zuzenekoan ikuskizuna eskaintzen duten musikariak dira bizkaitarrak. Taldearen izenak dioen moduan, sei zoro izango dira taula gainean.

The Killministers

Bigarren taldea ere bizkaitarra da. Horiek, baina, esperientzia handiagoa dute musika munduan. 2006an sortu zuten taldea, eta garage eta punk-rocka egiten dute.

Arrasateko gaztetxera eurek sortutako punk eta rock doinuak ekarriko dituzte, eta ikuskizun aparta eskainiko dute. Hitzordu "paregabea" izango da.



Plastikozko poltsekin egindako irudiak. | GOIENA



RK^UZ
MUEBLES
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
ALTZARIAK
ARRASATE



RK^UZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA **FAGOR**
banatzaile ofiziala

RK^UZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA **expert**
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.

GRUPO RK^UZ
ARETXABALETA 1950-2011 ARRASATE

60 urte baino gehiago

Uema eguna Bergaran ospatuko da ekainaren 4an, zapatuan

'Gure hizkuntzak har dezan arnas' lelopean egitarau zabala prestatu dute

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak, Udalak eta Jardun euskara elkarteak aurtengo Uema eguna aurkeztu dute. Hiruiek nabarmendu dute egun berezia izango dela aurtengoa, Bergarak Uemaren aldeko apustu indartsua egin duelako eta bi agintaldiren artean ospatuko delako.

Uemako lehendakari Jon Bollarren hitzetan: "Egoera politiko berriak eta udal hauteskunde emaitzek aukera emango digute hurrengo hilabeteetan inoiz ez bezala hazteko". Gainera, festak Uemaren mezua hobeto hedatzen lagunduko du. Maitane Arizabaleta Jardun euskara elkarteak kidearen hitzetan, "euskalgintzarintzat Bergara Ueman egotea pozgarria da: batetik, euskararen ezagutza maila handia dela adierazten duelako; eta, bestetik, euskaraz bizi izateko."



Uemako lehendakaria, alkatea eta Jarduneko ordezkaria. | IMANOL GALLEGO

Jaieguna

Jaiak, baina, aldarrikapen horiek guztiak era ludikoan adierazi nahi ditu. 08:00etatik 23:00ak arte ekitaldi ugari antolatu dituzte; besteak beste, hitz gurutzatuen

lehiaketa. Antolakuntzakoek gogoratu nahi izan dute San Martin plazan egingo den herri bazkarirako txartelak erosteko azken eguna maiatzaren 30a izango dela.

Plan Estrategikoaren jarraipen batzordea osatzeko dei egin dute

M.B. | BERGARA

Bergara Bazara Bagara izeneko Plan Estrategikoa aurkeztu zuten Udalean joan den maiatzaren 5ean. Aurkezpenean Plan Estrategikoaren edukia azaltzeaz gain, lan horri segimendua egiteko eta herritarren parte-hartzean sakontzeko jarraipen batzordea osatzeko konpromisoa hartu zuen Udalak. Bada, har-

tutako konpromisoa aintzat hartuz, jarraipen batzorde hori osatzeko bilera deitu dute ekainaren 1erako, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.

Ordu eta erdi inguru iraungo du batzarrak eta jarraipen batzordearen funtzionamendua, maiztasuna... adostea da helburua. Udalak parte hartzeko dei egin die herritarrei.

OHARRAK

GAIXOEN EGUNA EGUBAKOITZEAN

Santa Marinan ospatuko dute, 19:00etan, eta oliadura sakramentua egongo da.

gabeko elkarteek egin ditzakete eskaerak ekainaren 6ko 12:00ak arte.

87 URTEK GORAKOEI OMENALDIA DOMEKAN

87 urtetik gorakoei omenaldia egingo diete domekan. 12:00etan meza egongo da Santa Marina parrokian eta ondoren luncha egongo da eta opariak banatuko dituzte Sn Joxepe elkarteak.

TRIKITI EGUNERAKO TXARTELAK SALGAI

Uztailaren 3rako San Martzialgo txosna eta kantina ustiatzeko izenematea ireki du Udalak. Bergarako irabazi asmorik

Ruben Montero bergarraren irudia aukeratu dute Jardunekoek Mendekoste jaietako zapirako

Jasotako 11 lanen artean aukeratu dute. Irudiarekin batera *Dantzatu mingaina euskaraz* delako leloa eroango du zapiak eta lelo hori duten pegatinak ere aterako dituzte. Zapiak Pazkoetako egubakoitz eta zapatuan salduko dituzte, plazan, 5 eurotan.



Zapirako irudia. | RUBEN MONTERO



AITOR GONZALEZ

AHTren desjabetzeen kontra

Asteon AHTren Bergara-Bergara zatiko lurrak desjabetzeko aktak sinatzekoak zirela-eta protesta bilkura egin zuten hainbat herritarrek. Alkatea udaletxean ez zegoela eta, atzeratu egin dute sinatze eguna.

Hautesleku guztietan nagusitu zen Bildu

Koalizioak 9 zinegotzi lortu ditu; EAJk zituenak mantendu ditu eta Aralarrek eta PSE-EEk bana galdu

M.B. | BERGARA

Erabateko gehiengoa lortu zuen Bilduk domekan. 3.608 botorekin herriko alderdirik bozkatuena izan zen -baita hauteslekuka ere,

beheko taulan ikus daitekeen moduan-, eta udalbatza osatzen duten 17 zinegotzietatik bederatziz zinegotzi egokitu zitzaizkion.

EAJren kasuan, bigarren indarra izan da 2.108 botorekin eta aurreko agintaldian izandako bost zinegotziak mantendu ditu. Aralarren kasuan, hirugarren alderdi bozkatueta izan da 748 botorekin. 2007ko udal hauteskundeetako emaitzekin alderatuz gero, zinegotzi bat galdu dute. Eta gauza bera gertatu zaio PSE-EE alderdiari: 627 botorekin zinegotzi bakarrarekin geratu da. PPK, EB-Berdeak eta Berdeek ez dute zinegotzirik eskuratu.

EMAITZAK BOST HAUTESLEKUETAN

ALDERDIA	PILOTALEKUA	MATXIATEGI	OSINTXU	MARTOKO	IBARRA	GUZTIRA	ZINEGOTZIAK
Bildu	1862	754	130	522	340	3608	9
EAJ	1110	484	77	312	125	2108	5
Aralar	422	131	24	102	69	748	2
PSE-EE	277	175	13	132	30	627	1
PP	108	66	5	56	0	235	0
EB-Berd	60	31	1	49	11	152	0
Berdeak	40	28	4	8	5	85	0
Zuriak	45	15	0	12	5	77	0
Baliogabeak	29	9	2	10	2	52	0

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIARIK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

GOIERRI
Autogidarien Eskola

Gidabaimena euskaraz zein gazteleraz atera dezakezu
Informa zaitez

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

GURIA
Taberna


Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

Kayak Taberna

Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11



Mariaren Lagundia ikastola

Espaloia 1
Tel. 943 76 25 40 / 41
ikastola@mlagundia.net



Gizarte Integrazioko Goi Mailako Teknikaria



MATRIKULAZIOA:
ekainaren 1etik 10era



zergatik ez
errealitate
bihurtu?



HAUR HEZKUNTZAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

Profesionalak gertatzen 1976-tik

- Praktikak European egiteko aukera (Erasmus)
- GMHZtan lan munduratze altuena %85a
- Plaza mugatuak

informazio gehiago:
www.mlagundia.net

Erlojupeko probetan espezializatzeko hiru saio

Ibarreko ziklistek datozen asteotan hiru erlojupeko izango dituzte, azkena Bergaran

X.U. | BERGARA

Ibarreko ziklistek batere erraza ez den modalitatean jarduteko hiru hitzordu izango dituzte datozen asteotan.

Domekan, Urduñan (Bizkaia) Euskal Herria torneorako puntuagarria izango den erlojupekoa izango dute, eta sailkapenean bigarren Sumoficeko Eneko Lizarralde dago, Errenterian lortu zuen garaipenari esker. Ekainaren lehen datarren eguaztena - Aizarnazabalen disziplina horretako Gipuzkoako

txapelketa egingo dute (Gervais memoriale). Eta proba horretan parte hartzeko Sumoficeko lau ziklista daude sailkatuta.

Ekainaren 4an, Bergaran Hitzordu handia, baina, Bergaran izango da, ekainaren 4an. Lokatzak antolatuta Euskal Herriko erlojuaren kontrako txapelketa egingo dute. 16 ziklistarendako lekua baino ez da egongo, eta Gervais memorialean egindako lana izango dute kontratu.



ZAITEGI

Herri artekoan ezin aurrera egin

Bergarako pilotariak abantaila txikia zuten Azkoitiaren kontra jokatu beharreko herri arteko itzulerakoan. Joanekean Reyes Azkoitiaren mutilek 2-1eko abantaila eskuratu zuten, baina tanteo estuarekin. Eta, joan den egubakoitzean, etxean, urduritasunagatik-edo bergararrek ez zuten euren bertsiorik onena erakutsi. Emaizta bera izan zen, 1-2, baina *tanto-averagea* azkoitiarren aldekoa izan zen.

Gipuzkoakoan kategoria guztietan irabazita, domekan Euskadikora

Alebinak eta infantilak Euskadiko txapelketan izango dira domekan

XABIER URTZELAI | BERGARA

Ariznoako gimnastek amaitu dute Gipuzkoako txapelketa, eta ondo amaitu ere, Bergarako ordezkariak txapelketan izan dira eta kategoria guztietan. Gainera, banakako lehiak ere Mariana Nunes alebinak lehen postua lortu zuen, Sonia Gonzalez infantila laugarren izan zen, Jone Olaberria infantila zazpigarrena, Ane Miren Mugurutza kadetea lehenengoa, Jeniffer Pineda kadetea bigarrena eta Maider Cabo kadetea laugarrena.

Euskadikoa, domekan

Emaizta horiekin guztiak sailkatu dira Euskadiko txapelketarako. Domekan, hilak 29, Gasteizko Abetxuko kiroldegian izango da finala alebin eta infantilentzat. Kadete, gazte eta seniorrek, berriz, finala Durangon jokatu dute ekainaren 4an.



Infantil, alebin eta kadeteak, entrenatzaileekin. | ARIZNOA

Pol-Polekoak Moncayora joango dira ekaineko lehenengo asteburuan

X.U. | BERGARA

Pol-Pol mendi taldeak eta Gorla Alpino Taldeak Zaragoza eta Soria artean dagoen mendilerroa joateko irteera antolatu du, Moncayora (2.314 metro). Sistema Iberikoko gailurrik garaienera joateko irteera asteburu osorako izango da, ekaineko lehen aste-

buruan (ekainak 4 eta 5). Bidaia Pol-Polekin egin ahal izateko txartelak mendi taldearen bulegoan daude eskuragai, astelehene eguaztenara, 18:45etik 19:45era. Hala, mendizaleek Moncayorako bidea zapatu goizaldean hartuko dute, 06:00etan, pilotaleku parean.

Azkena, hamabost egun dela

Orain dela hamabost egun Nafarroako mendietan ibili ziren Pol-Pol mendi taldeko lagunak, Peña Izaga (1.361 metro) inguruan. Bergarako 35 lagun animatu ziren irteeran esku hartzeraz. Idotzin herritik irten ziren, eta Peña Izaga igo ostean San Migel ermita ezagutu eta Urrotz aldera egin zuten, zeharkaldia amaitzeko. Mendizaleek guztira 16 kilometro buelta ederra egin zuten, sei orduan.

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urate 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*


Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

Udaberriko kontzertua herriko musika ikasleekin

Kontzertua bihar, zapatua, izango da, 19:00etan, Udal Pilotalekuan; sarrerak salgai daude

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Musika Eskolako gaztetxoek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua. Udaberriko kontzertua izango da eta 19:00etan hasiko dute emanaldia. Aurrez, herriko kaleak animatuko dituzte trikitilariak. 18:30ean hasiko dute kalejira.

Kontzertuak une hunkigarria ere izango du. Izan ere, aurten 25 urte beteko ditu Musika Eskolako Gazte Bandak. Urteurren borobil hori ospatzeko musika pieza bereziak prestatu dituzte bandako kideek biharko kontzerturako.

Horiek guztiak eta gehiago entzuteko aukera egongo da bihar pilotalekuan. Kontzerturako sarrerak Musika Eskolan eta egunean bertan pilotalekuan egongo dira salgai. 12 urtetik beherakoek 2 euro eta 12 urtetik gorakoek 4 euro.

Ondoren, afaria

Udaberriko kontzertuaren ondoren afaria egingo dute. Afarirako txartelak Musika Eskolan daude salgai. Afari txartelen prezioak dira: 12 urtetik beherakoek 6 euro eta hortik gorakoek 16 euro.



Musika Eskolako ikasleak kontzertua eskaintzen. | MUSIKA ESKOLA

Maitane Arizabaleta | Jarduneko kultura koordinatzailea

"Sortu dugun batzordeak herri mailako ekintzetan jardungo du"

A.E. | BERGARA

Jarduneko trikiti eskola Musika Eskolako trikiti eskolaren barnean sartzea hitzartu dute. Aurrerantzean Musika Eskolara joan beharko dute trikitia ikasi gura duten herritarrek. **Adostu duzuen puntuen artean batzorde bat eratzea dago. Zertaz arduratuko da batzorde hori eta nortzuek osatuko dute?**

Batzordea gurasoen, Jardun Euskara Elkartearen eta Musika Eskolaren artean eratuko dugu eta batzorde edo elkarte honek, bereziki, herri mailako ekintzetan jardungo du. Alde batetik, ekintza eta proposamen berriak aurrera eramateko, eta, bestetik, ekintza hauen bidez, modu zuzen edo zeharkakoan, kultura eta euskara sustatzeko. Helburua herrira zabaldu eta herrikoia izatea da. Euskal kantutegia, euskal musika... bultzatuko da.

Kulturaren eta euskararen alde lan egitea izango da asmoa?

Jardun Euskara Elkartearen ikuspegitik helburu nagusiak dira, besteak beste, euskal giroa suspertzzea, kultura ekintza eskaldunak bultzatzea, euskaltzale guztien indarrak batzea eta euskararen erabilera sendotzea. Honen harira, garrantzitsua



Maitane Arizabaleta. | GOIENA

iruditzen zaigu batzorde honetan parte hartu eta ekintza euskaldunak bultzatzea.

Euskara hutsean funtzionatuko du batzordeak.

Euskara elkarte moduan beharrezkoa eta garrantzitsua da euskara hutsez funtzionatzea. **Zergatik bateratu dituzue bi trikiti eskolak?**

Arrazoi nagusia herriari begira zerbitzu bera leku berean eskaintzeko aukera izan da. Bestalde, 18 urteko ibilbidean Jardunek bete ditu hasierako helburuak; besteak beste, soinua eta panderoa herriratzea eta gure instrumentuak ikasteko solfeo gabeko aukera eskaintzea.

Bergarako Orfeoak kontzertua eskainiko du bihar Mieresen

Asturiasko Mieres herrira bidaiatuko dute gaur Bergarako Orfeoiko kideek. Bihar izango dute kontzertua. Lehenengo zatian orfeoak bakarrik abestuko du. Aitor Biainen zuzendaritzapean abestuko dute bergarrek; gainera, Eli Muruamendiaratz piano jolearen laguntza izango dute hainbat musika lanetan. Azkeneko piezak, bestalde, Mieresko Orfoiarekin elkarlanean abestuko dituzte. Apirilaren 16an Mieresko Orfeoak Bergaran abestu zuen.

Hilaren 31ra arte eman daiteke izena hitz gurutzatuen lehian

Ekainaren 4an Uema eguna ospatuko dute Bergaran. Besteak beste, hitz gurutzatuen binakako I. txapelketa jokatuko da. Txapelketa egunean bertan izango da, Uema egunean, baina izena aurrez eman behar da. Horretarako epea maiatzaren 31ra arte izango da.

Lehiaketan 16 urtetik gorakoek parte har dezakete. Kanporaketak 10:30ean izango dira eta final nagusia San Martin plazan jokatuko da, 13:00etan.



JOXE MARI IPARRAGIRRE
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi mailako heziketa zikloa.
Osasun familia. A-D EREDUAK

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Zaharren egoitzetan.
- Eguneko zentroetan.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

AURREMATRIKULA:

Ekainaren 1etik 10era (biak barne)

MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Uztailaren 4tik 8ra (biak barne)



J.M.IPARRAGIRRE B.H.I

Santa Barbara bidea z/g - 20700 URRETXU (Gipuzkoa) • Tel./ Faxe: 943 72 14 03 / 943 72 14 13
www.iparragirre.net - jmiparragirre@edunet.es



Oñatiko patinatzaile gazteak, irakaslearen agindua jasotzen, iazko kirol kanpainan. | GOIENA

Berrikuntzak egongo dira udako kirol kanpainaren eskaintzan

Hurrengo astean egin beharko da aurre-izenematea zozketan parte hartzeko

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Zubikoa kiroldegiko arduradunek esku artean dute udako kirol kanpainako triptikoa. Aurten 23 kirol eskaintza jarriko dituzte herriko ume eta gazteen eskura: guztira, 915 neska-mutikorendako lekua izango dute.

Urteroko kirol eskaintzez gain, berrikuntzak izango dituzte aurten: alde batetik, multiabentura delako kirol eskaintza: egubakoitzetan bakarrik eskainiko dute, eta kirola aldatu egingo dute astero (mendi bizikleta, eskalada, orientazio lasterketak...). Beste alde batetik, neskendako paleta. "Mutilek, gehienbat, pilotan egiten dute. Paleta neskendako aukera izango da", esan digute kiroldegiko arduradunek.

Gainera, erraketarekin egiten diren kirolen jinkana egiteko aukera izango dute; xakean, has-tapen eta hobekuntza saiok egingo dituzte; eta gazteendako aquaerobik egingo dute. Bestalde, eskaera aintzat hartuta, igeriketa ikastaroa gehiago egingo dituzte aurten.

Udako kirol kanpainaren gaineko informazioa astean banatu dute ikastetxeetan.

Izenematea

Eskaintzan berrikuntzak dauden neurrian, izenemate prozesuan ez dago aldaketarik. Maiatzaren 31n (09:00-13:30 eta 15:00-19:00) eta ekainaren 1ean (09:00-13:30) egin behar da aurre-izenematea. Zozketan parte hartzeko eskaerak

kiroldegiko idazkaritzan entregatu behar dira. Ekainaren 2an zozketaren emaitzak ipiniko dituzte kiroldegi sarrerako taulan, eta han zehaztuko dute ume bakoitzak noiz eman behar duen izena. Behin betiko izenemate epea ekainaren 6an, 7an, 8an, 9an eta 10ean egin beharko dute.

Txanda aukera ezberdinak

Azken urteen antzera, txanda aukera ezberdinak izango dituzte erabiltzaileek. Txanda nagusiak bi izango dira: ekainaren 27tik uztailaren 8ra eta uztailaren 11tik 22ra. Kirol batzuk txanda bakarrean egingo dituzte: ekainaren 27tik uztailaren 22ra. Abuztuaren bi txanda daude: 2tik 12ra eta 16tik 26ra.

OHARRAK

DEIALDIA

1946an jaiotakoek irteera berezia egingo dute ekainaren 4an. Bada, irterean parte hartu gura dutenendako izenematea bihaxar bukatzen da, hilaren 28an. Izarraitz tabernan edo Urrutia dendan hartzen dituzte izenak. Antolatuzaileek dei berezia egin diete urte hartako kinto guztiei irterean parte hartzeko.

DEIALDIA

Ekainaren 10ean egingo dute udako oporren aurreko azken odol-ateratzea. Txantxiku ikastolako aretoan, 18:00etatik 20:00etara.

BEKA

Udako Unibertsitatearen udako ikastaroetan parte hartu gura duten ikasle eta langabeek udalaren dirulaguntza jaso ahalko dute;

gehienez, matrikularen %50. Eskararak, udal bulegoetan.

IKASTAROA

Zubikoa kiroldegian bizkarrezurraren patologiei buruzko ikastaroa antolatu dute. Ekainaren 4an egingo dute, teorikoa eta praktikoa: 10:00-14:00 eta 15:30-19:30ean. Izenematea, Zubikoa kiroldegian.



Bilduk lortu zituen boto gehien mahai guztietan

M.B. | OÑATI

Emaizta orokorren moduan, Bildu koalizioak batu zituen boto gehien udal hauteskundeetako 16 mahaietan. Horietako baten, gainera, hirukoiztu egin zuen EAJk lortutako boto kopurua. Hain zuzen ere, 1-6-B mahaietan 357 boto lortu zituen Bilduk eta 101 EAJk. Gainera, beste bi mahaitan aldea nabarmena izan zen koalizioaren alde: 1-6-A mahaietan 237 botoren aldea eta 2-2-U mahaietan 178 botorena.

Guztira, 3.308 boto batu zituen Bilduk eta 1.936 EAJk.

Ordezkaririk barik

2007ko udal hauteskundeetan baino boto gehiago jaso arren, EAJ bigarren tokian geratu zen atzerapen nabarmenarekin: Bilduk baino 1.372 boto gutxiago batu zituen EAJk baino.

Bilduren gehiengo osoarekin, gutxiengoan dauden alderdiek ordezkari galduta dute: PSE-EE, PP, Aralar, Ezker Batua eta Hamaikabat alderdiek ez dute zinegotzirik lortu.

Aipagarriena da azken agintaldian hiru zinegotzi izan dituen Hamaikabat ordezkari barik geratu dela.

EMAITZAK HAUTESLEKUKA

	IKASTOLA	ERREKALDE	SANTA MARINA	TXIKI TXOKO	IRRATIA	GUZTIRA
Bildu	1.318	306	582	737	365	3.308
EAJ	889	189	375	244	239	1.936
Aralar	99	12	46	55	18	230
PSE-EE	59	51	20	42	37	209
PP	71	41	36	28	27	203
EB	92	25	21	32	20	190
HT!	73	33	31	24	21	182
Zuriak	18	4	6	8	2	38
Baliogab.	13	5	5	13	2	38
Hautesle	3.645	917	1.589	1.669	1.002	8.822
Botoak	2.661	666	1.122	1.183	731	6.363

Arrantza txapelketa, ekainaren 4an

M.B. | OÑATI

Herri mailako arrantza txapelketa egingo dute ekainaren 4an Arantzazu errekan, Pago Uso elkarteak eta Alzu dendak antolatuta. Txapelketa 16:00etan hasiko dute Etxe Aundi jatetxe aurrean. 19:00etara arte amuarrain gehien harrapatzen dituenak irabaziko du. Bukarmerienda eta sariak egongo dira parte-hartzaile guztientzako.

Interesatuak dagoeneko zabalik dute izenemate epea: ekainaren 2a baino lehen egin beharko dute, Alzu dendan.

Poltsa berrerabilgarriak Txandarekin

M.B. | OÑATI

Txanda dendarien elkarteak garapen sostengarriaren aldeko kanpaina abiaraziko du ekainean; hain zuzen ere, ekainaren 4an. *Berdearen txanda* delako leloarekin 2.000 poltsa berrerabilgarri banatuko dituzte elkarteko kide diren negozioetan: Txandaren leloarekin eta Txanda-kide direnen izenekin. Kanpainaren helburua da plastikozko poltsen erabilera txikitzea eta berrerabilgarriak erabiltzeko ohitura bultzatzea. Kanpaina ekain osoan egingo dute.

Zorionak Oñati
aldaketara biltzeagatik!

Mila esker!



Musika, erretiratuen antzerkia, film laburrak, goitibeherak eta beste Errekaldeko jaietan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

19:00etan botako dute etxafuegoa, eta hala hasiko dituzte Errekaldeko jaiak. Gaurtik domekara arte askotariko ekintzak egingo dituzte. Festak hasteko txorizo eta sagardo dastatzea eta rock kontzertua egingo dituzte, besteak beste. Discipulos de Dionisos, Lobo Electrico, Fiachras, EZ! eta CC627 taldeek egingo dute zuzeneko, 21:00etan.

Bihar haurrendako puzgariak eta hiruko saskibalo txapelketa jokatuko dituzte. 16:00etan goitibehera lasterketa egingo dute Larrain Gain elkarte ingurutik Errekalderaino.

19:30ean rock kontzertua egingo dute Reaccion 912 eta Kepa eta Ander taldeek. 22:00etan Ikusi Makusi antzerki taldeak emanaldia egingo du. 02:00etan film laburrak eskainiko dituzte.

Hildakoen aldeko meza

Domekan, auzoko hildakoen meza egingo dute. 12:00etan umeendako krosa egingo dute eta 14:30ean auzo bazkaria. Bazkaldu ondoren mus txapelketa egingo dute, eta 19:00etan Hamai-ka Bertutek bertso emanaldia egingo du. Jaiak etxafuegoak botata bukatuko dituzte.



ALOÑA MENDI

Kadeteak ohorezko mailara igo dira

Aloña Mendiko kadete mailako mutilek igoera lortu dute eta hurrengo denboraldian ohorezko mailan jokatuko dute. Igoera fasean ibili dira buru-belarri azken asteotan, eta, bigarren lekuan sailkatuta, igoera lortu dute Beti Gazte taldearekin batera. Azken jardunaldian 2-0 menderatu zuten Añorga. Bestalde, emakumeen kadete mailako taldeak denboraldi bukaera bikaina izango du: kopa txapelketako finala jokatu du Intxaurdiren kontra.



lazio goitibehera lasterketako parte-hartzaileetako bat . | GOIENA

Erretiratuen Astea ekainaren 6tik

M.B. | OÑATI

Pake Leku elkarteak gertu du Erretiratuen Asteko egitaraua. Ekainaren 6tik 12ra askotariko ekintzak egingo dituzte: Aloña abesbatzaren kontzertua, San Martinera irteera, bingo berezia eta bazkaria, besteak beste.

Hain zuzen ere, irteerarako eta bazkarirako txartelak aldeztu aurretik erosi behar dira. Biak

ala biak salgai ipiniko dituzte ekainaren 1etik 3ra, erretiratuen elkarteetan, 18:30etik 20:00etara.

Gainera, hilaren 12an egingo duten bazkarian, herriko bi nagusi omenduko dituzte. Udal Musika Bandak eta Oñatz taldekoek emanaldia egingo dute. Bazkalondoren zozketa egingo dute eta sariak banatu dituzte parte-hartzaileen artean.

Mikel Illarramendi omenduko dute etzi Eskoriatzan

Mikel Illarramendi oñatiarrak omenaldi beroa jasoko du etzi, domeka, Eskoriatzan, haren egungo bizilekuan. 13:00etan triki-poteoa egingo dute kale-rik kale eta 15:00etan bazkaria Apotzagan.

Illarramendi hilaren 19an heldu zen Oñatira, eta han ere omenaldia jaso zuen.

2011
ekainak 3 elkarhezi eguna
 jaialdia, puzgariak, Iturigorri, auzo afari-merienda

ekainak 17 hartzaindegiko jai
 ipuin kontaketa, piñata, txitxi-burduntzia, trikitalariak

irailak 17 ikasle ohien eguna
 trikipoteoa, bazkaria, jolasak eta sorpresak, kontzertuak...

Domekan Gipuzkoako bertsolari txapelketako kanporaketako saioa

Bi saio egingo dituzte goizean eta arratsaldean, eta seina bertsolari elkartuko dira bakoitzean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Gipuzkoako bertsolari txapelketa hasita dago, eta aste bukaeran lehen faseko bigarren itzulari hasiera emango diote. Zortzi kanporaketa jokatu dira guztira eta horietako bat gurean izango da, Aretxabaletan. 12 bertsolari izango dira guztira norgehiagokan; sei goizean (11:30) eta beste sei arratsaldean (17:30); tartean, bi debagoiendar: Jokin Labaien arrasatearra eta Oñatin bizi den Urko Egaña.

Goizeko saioa

Goizean jardungo duten bertsolariak izango dira: Beñat Lizaso, Felix Zubia, Nahikari Gabilondo, Nerea Elustondo, Odei Lopez eta Xabi Astigarra. Eta egin beharko dituzten lanen artean daude: hiruna bertso binaka eta gaia emanda, zortziko handian; beste hiruna bertso zortziko txikian; eta beste hiruna Iparragirre doinuaren molde berrian.

Norgehiagoka bukatzeko kartzelako lanean hiruna bertso egin beharko dituzte bakarka, lehen puntua emanda, zortziko txikian; eta bertso bana, gaia emanda.

Arratsaldeko saioa

Arratsaldean, ostera, beste sei bertsolarik jardungo dute norgehiagokan: Gorka Maiz, Iker Osa, Jokin Labaien, Joseba Andoni Agirre, Mikel Arrillaga eta Urko Egaña. Horiek egingo dituzten lanak izango dira: hiruna bertso binaka, gaia emanda, zortziko handian; seina koplak binaka, gaia emanda, lauko handian; eta hiruna bertso binaka, gaia emanda, hamarreko txikian.

Kartzelako lanean, ostera, bina bertso abestu beharko dituzte gaia emanda, gura duten doinu eta neurrian.

Bai goizeko bai arratsaldeko saioetan Irati Agirreazaldegiri elgoibartarrak jardungo du aurkezle lanetan, eta epai-mahai-kideak izango dira: Julian Albistur, Mikel Lersundi, Urtzi Basterrika eta Eneritz Azkue.

Sarrerak erosteko aukera

Bi saioetarako sarrerak Internet bidez eskura daitezke www.gpuntua.com, baita bazkarirako txartelak ere. Internet bidez sarrera guztiak saldu ez badira egunean bertan ere izango dituzte Arkupeko harreraren.



Herriko gune guztietan nagusitu da Bildu

Aralar bigarren indarra izan da gune guztietan, EAJren aurretik

M.A. | ARETXABALETA

Batzuen poza eta besteen etsipena; horixe, maiatzaren 22ko gauak utzitakoa. Bildukoak pozik, Aretxabaletako hauteskunde-mahai guztietan, hau da, gune guztietan nagusitu zirelako; aise nagusitu ere. Azken lau urteotan udalean egotarik izan ez dutenen botoa eskuratu zuten (2007an, ANVk 839 boto) eta baita EAkoena ere (2007an, 529); nahiz eta batzuek iragarri horien boto asko beste alderdi batzuek jasoko zutela.

Aralarrek eutsi egin die hiru zinegotzietan eta ia 200 bototan egin du gora (2007an, 593 boto). Bigarren indarra izan da herriko gune guztietan, EAJren aurretik. Gora egin du EAJk ere boto kopuruan (2007an, 504 boto) baina ez du lortu hirugarren zinegotzirik.

PSE-EEK eta EBk botoak galdu

Botoak galdu zituztenak PSE-EE (2007an, 400) eta Ezker Batua (2007an, 161) izan ziren; hala, galdu egin dute biek zinegotzi bana eta Ezker Batua ordezkartza barik geratu da. Eta PPK zer-txobait gora egin arren (2007an, 117) ez du lortu ordezkartzarik Aretxabaletan.



Bilduko kideak, EAJkoa eta Aralarkoa botoak kontaktzen, domekan. | M.A.

ARETXABALETAKO DATUAK GUNEA

ALDERDIA	IPARRALDEA	ERDIALDEA	HEGOALDEA	AUZOAK	GUZTIRA
Bildu	317	426	459	311	1.513
Aralar	177	230	242	137	786
EAJ	170	216	164	80	630
PSE-EE	86	76	83	17	262
Ezker Batua	22	18	29	8	77
PP	45	43	35	9	132
Zuriak	11	8	14	5	38
Baliogabeak	10	15	9	3	37
Abstentzioa	%34,94	%34,31	%35,15	%34,48	%34,74

OHARRAK

ODOL ATERATZEAK

Odol ateratzeak egingo dituzte datozen hiru astelehenean: maiatzak 30, ekainak 6 eta ekainak 13.

Osasun etxean izango dira Arabako Odol Bankuko kideak (16:30-20:00).

'LAPURREN BIDETIK' ANTZEZLANA

Kurtzebarriko antzerki eskolak *Lapurren bidetik* antzezlana eskainiko du ekainaren 1ean Arkupen (17:00 eta 18:00).

'ARGOTU' ANTZEZLANA

Debote Enbote antzerki taldeak *Argotu* antzezlana eskainiko du ekainaren 1ean, eguaztena, Herriko Plazan (19:00).

BERTSO JAIALDIA

10 eta 12 urte arteko herriko neska-mutikoen bertsotan jardungo dute ekainaren 2an Herriko Plazan (17:00).

200 ume izango dira etzi Haur Dantzarien Egunean

Arrasate, Antzuola, Oñati eta Soroluzetik datoz Leizarrakoeekin bat egin eta dantzan jarduteko

M.A. | ARETXABALETA

Domekan, hilaren 29an, 200 bat neska-mutiko batuko dira gurean Haur Dantzarien Eguna ospatzeko. Iaz hasitako ibilbideari jarraituta, Leizarra musika eskolak eta Udalak elkarlanean antolatuko dute ospakizuna eta dantzari eta txistu doinuekin beteko da herria. Herriko bost gunetan egingo dituzte dantza saioak goiz partean, eta arratsaldean alardea eskainiko dute plazan dantzari guztiek elkarrekin.

Bost gunetan dantzan

Gurean izango diren dantza taldeak bost dira: Lore Gazteak eta Txikitxu (Arrasate); Oñatz (Oñati); Oinarin (Antzuola); eta Urrats (Soroluze). Haiei harrera egingo diete Aretxabaletako Leizarra dantza taldeko kideek, 50 bat neska-mutikok, eta elkarrekin joango dira dantzan egitera.

Herriko Plazan elkartuko dira guztiak (11:30) eta banaketa egin ondoren ospakizuna hasiko dute (12:00). Bost gune izendatu dituz-

te dantza erakustaldiak egiteko: Murubide plaza; Herriko Plaza; Durana kalea; Ilargi plaza; eta Iralabarri plaza. Arrasateko Txikitxu dantza taldea eta Soroluzeko Urrats elkarrekin joango dira gunez gune, eta gainerakoak bakarrik. Talde bakoitzak bi gunetan egingo du dantzan eta saio guztiak bukatutakoan plazan elkartuko dira berriro (13:30), bazkaltzera joateko.

Alardea eskainiko dute arratsaldean plazan (17:00) eta horrekin agurtuko dute eguna.

Elkarteak laguntzaile

Urtero legez, herritarren eta elkarten laguntza izango dute antolatzaileek bazkariak emateko; hona elkarte laguntzaileak: Hiba Gain, Eguzki Alde, Muru Alde, Urats Alde, Urkulu eta Urbaltz.

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Santa Kurtz 24, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
•
Obra bukaerako garbiketak
•
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
•
Kristalen garbiketak
•
Arropa garbiketak

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada giro!

Anduaga Jatetxea

Eguneko menua
Bokatak
Plater konbinatuak
Errazioak
Karta

Araba Ibilbidea 31, behea
ARETXABALETAK | 943 79 96 54



BASABE

Menuak
eta afariak

Basabe poligonoa
ARETXABALETAK 943 77 31 19



DORLETA TABERNA

Loteria eta
kinielak

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15
ARETXABALETAK



Gurea TABERNA

Lotoak eta
kinielak

Durana 32 ARETXABALETAK
Tel.: 943 79 20 64



HIRUSTA JATETXEA

Eguneko menua
Karta
Bokatak
Plater konbinatuak

Ilargi plaza 4.
ARETXABALETAK
Tel.: 943 79 06 57



IOSU taberna harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1 ARETXABALETAK
Tel.: 943 77 03 08



Matikua jatetxea

MENUA
KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK

Azatza auzoa
ARETXABALETAK
943 79 16 68



OTZETA JATETXEA

- Menua
- Gazte menua
- Karta
- Eramateko janari
prestatuak.
- Ogitartekoak.

Aranburuzabala 9
ESKORIATZAK
Tel.: 943 71 31 67



Manolo izango dute beti gogoan eskoriatzarrek kiroldegiaren bidez

- Herriko kiroldegia Manuel Muñoz kiroldegia da eguaztenetik
- Bihar, zapatua, Eskoriatza kirol elkartearen eguna egingo dute

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Hunkigarria izan zen eguazten arratsaldean Eskoriatza kirol elkartearen presidente zenaren omenez egindako ekitaldia. Herriko kiroldegiari Manuel Muñoz kiroldegia izena jartzeko ekitaldiak familia, udal ordezkari, kirol elkarteko kide eta eskoriatzar asko batu zituen.

Ander Agiriano Kirol zinegotziak hartu zuen lehenik hitza. Muñozen "lanerako gogoia" eta balioak nabarmendu zituen; horren harira, aurrera egiteko balio horiek kontuan izan ditza la eskatu zion Eskoriatza kirol elkarteko Jabi Corbali. Familia eta kirol elkartearen izenean, azken horrek aipatu zuen Muñoz oso pertsona "garrantzitsua" izan dela, eta oraindik ere badela.



Mikel Muñozek erakutsi zuen aitaren omenez jarritako plaka. | MIRIAN BITERI

Horretaz gainera, kiroldegia haren izena izan dezan eta eguaztenean omenaldi "xumea" antolatzeke, Udalak eta kirol federazioek egin-

dako lana txalotu nahi izan zuen. Jarraian, aureskua dantzatu zuten, eta, dantza amaitzean, txalo artean, kiroldegiko sarreran

jarri duten plaka erakutsi zuen Muñozen seme Mikelek. Euskadi-Gipuzkoa arteko partiduarekin amaitu zen guztia.

ELKARTEAREN EGUNA

BIHAR, ZAPATUA

- 10:30 Saskibaloia
- 11:20 Areto futbola
- 11:00 Umeen jokoak
- 11:00-12:00 Tortilla lehiaketa
- 12:00 Disko musika
- 12:30 Moto konzentrazioa
- 14:30 Bazkaria Oztetan
- 16:00 Ohorezko Liga
- 17:00 Gimnasia erritmikoa
- 18:30 Saskibaloia
- 18:30 Txuleta jana
- 21:00 Erraldoi pantailan
Champion finala

Ekintza guztiak plazan dira, areto futbola eta saskibaloia izan ezik.

Ilarramendiren alde, festa eta aldarrikapen eguna etzi

M.B. | E

Mikel Ilarramendi presoak kalean dagoela ospatzeko, festa eta aldarrikapen eguna egingo dute etzi, domeka, Eskoriatzan; oñatiarra bada ere, Eskoriatzan du bizileku. Eguerdian hasiko dira ekimenak, trikitilari eta pandero-jotzailez lagunduta egongo den poteoarekin. Jarraian, Apotzaga elizatera abiatuko dira guztiak, bazkaria izango dute-eta han gertu.

Ilarramendi hilaren 19an geratu zen libre. 2003ko uztailaren 30ean atxilotu zuen Frantziako polizia. Epaitua izan ondoren, 10 urteko espetxe zigorra ezarri zioten. Zigorra amaituta, kanporatua izateko eta Espainiako polizia eskuetan geratzeko arriskua zuen eta, horren kontra, gose greba hasi zuen.

81 urte izanda ere, urteroko hitzordu berezia egiteko gogorik ez dute galdu 1929an jaiotakoek

M.B. | ESKORIATZA

Aspaldiko ohitura onak ez dira galdu behar. Horixe da 1929. urtean jaiotako eskoriatzarrek uste dutena, eta, hori dela-eta, 81 urte badituzte ere, aurten ere kintada egingo dute. Biharko, zapatua, egin dute hitzordua. Eguerdian par-

tean 16 lagun batuko dira Ozteta jatetxeko mahaiaren bueltan bazkaltzeko.

Urtero egiten duten moduan, bazkalostean aspaldiko kontuak gogorarazi ostean, San Pedro elizarantz joango dira, meza entzuteratara.



Orain dela 22 urte Egokiena elkartearen ateratako argazkia. | GOIENA

Atxorrotzeko indusketa arkeologikoetara bisita gidatua egingo dute bihar goizean

Mundumira jaialdiaren harira, bihar, zapatua, Atxorrotzeko gazteluaren aztarnategiko indusketetara bisita egingo dute. Maiatzean zehar Atxorrotzeko gotorlekuaren harresia berreskuratzeko lanak egiten dabilza Larrate enpresako lantaldea; hirugarren aldia da indusketa lanak egiten dabilzala. Iñaki

Sagredo historialariaren taldeak egindako lanak euren eskutik zuzenean ezagutzeko aukera izango dute biharko bisita gidatuan parte hartzen dutenek. Udaletik jakinarazi digutenez, 11:00etarako egin dute bisita gidaturako hitzordua, Atxorrotzen. Edonori dago zabalik irteera hori.

OHARRAK

GAZTEEN MERIENDA

Xabi Arenatzaren eskutik bertso-merienda izango dute gazteek gaur gaztelekuan.

KIROL HITZORDUAK

Bihar, kadeteen saskibaloia dago 10:30ean, Arizmendi Eskoriatza eta Zast Rankinen artean. Etzi, Ohorezko Ligako areto futbola izango dute etxekoek Berrehun Pezetaren kontra, 11:00etan.

AKUARELAK LUDOTEKAN

Akuarelak egingo dituzte hilaren 26an ludotekan.

UR ETA ZABOR TASAK

Ekainaren 9a baino lehen ordaindu behar da lehen seihilabetekoari dagokion zabor bilketa tasa; lehen hiruhilabetekoari dagokion estoleria eta ur hornikuntza tasa martitzenetik aurrera ordaindu ahal izango da.

San Pedro auzoko proiektua ikusgai dago

Dagoeneko jendaurrean dago San Pedro auzoa berritzeko proiektua. Joan den maiatzaren 19an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean horren gaineko iragarkia; hortaz, biharamunetik kontatzen hasita, hilabeteko epea dago gura duenak dokumentua aztertu eta, beharrezkoa dela iritiz gero, alegazioak egin ahal izateko. Honako ordutegian aztertu ahal izango da proiektua, udaletxean: astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 13:30era eta eguenetan 15:00etatik 17:00etara.

San Pedro auzoko 1. eta 9. atarrien arteko gunea berrituko dute. Saneamendu eta hornikuntza aldatuko dituzte, besteak beste, obra horien bidez.

bildu
eskoriatza

eskerrik asko
Eskoriatza!

Eguenean egingo da herriko jaiak antolatzekeo bilera

Berritasun moduan, kale-bazkaria egingo da Kalebarrenen jaietako egubakoitzean

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Joan den martitzenean egitekoa zuten jaietako bilera, baina datorren astera atzeratu dute. Hala, egunean, ekainak 2, 17:30ean egingo dute bilera udaletxean.

Aurten, nobedade moduan, kale-bazkaria egingo da jaietako egubakoitzean. Badira urte batzuk herriko koadrila askok egubakoitzean bazkaria egiten dutena jabetxeetan. Herriko jaietxeetan leku falta dela eta kanpora joan behar izaten dute askok bazkaltzera. Horregatik, zenbait koadrilak proposamena egin dute jai-batzordean, egubakoitzean kale-bazkaria egi-

teko mahaia jar ditzaten. Jai-batzordeak aintzat hartu du proposamena eta aurten mahaia jarriko dira egubakoitzean Kalebarrenen arkupetan nahi duenak bertan bazkal dezan.

Alardean parte hartzeko deia Mairuaren alardeko prestaketa lanetan hasita daude. Parte-hartzea irekia denez, gonbidatu nahi dituzte inoiz parte hartu ez dutenak, parte har dezaten. Beraz, norbaitek izena eman nahi deitu, deitu dezala kultura@antzuola.net helbidera. Aurten uztailaren 16an egingo da alardea.



Antzuolako gazteak Torresoroa atzeko berdegunean. | USOA AGIRRE

Berdeguneena, balorazio txarrena

Antzuolarrek herriarekiko duten gogobetetze-maila ikertu du Gizakerrek

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Antzuolarren gogobetetze-mailari buruzko ikerketa egin zuen 2010eko azaroan Gizakerrek, Kudeatuz programaren barruan. Antzuolan bizi diren 18 urtetik gorako 333 laguni egin zieten ikerketarako elkarrizketa telefonoz. Orain argitaratu dituzte ikerketa horren emaitzak.

Ikerketaren arabera, Antzuolako herritarren gogobetetze-maila 7,39 puntukoa da, ikerketa egin den Gipuzkoako 19 udalerrietako batezbestekoa baino (6,97) altuagoa. Era berean, "udalerrria bizileku gisa" izeneko adierazleari 7,91 puntu eman dizkiote; hori ere batezbesteko orokorra baino altuagoa da. Adierazle horri batzuek lau puntu baino gutxiago eman dizkiote, "udalerrian gauza asko falta direlako" edo "dendarik ez dagoelako".

Berdeguneak eta zirkulazioa

Azterketan parte hartu dutenen iritziz, herriko arazo nagusiak dira garraio publikoaren falta, zirkulazioa eta lan falta. Bestetik, balorazio txikiena jaso duten adierazleak dira: berdeguneen kopurua (5,14) eta kalitatea (5,88); zirkulazioa (5,73); eta lan egiteko aukerak (5,80).

Ikerketaren arabera, zirkulazioarena konpondu gabeko arazoa da Kudeatuz programan parte hartu duten udalerrri guztietan. Antzuolaren kasuan, gainerako udalerriek baino balorazio hobea lortu du: 5,73 (5,47ko batezbestekoa dute besteek).

Zerbitzuak

Herriko osasun-zerbitzuari 6,67ko nota eman diote elkarrizketatutakoek. Ikerketaren arabera,

"berez balorazio eskasa ez bada ere, ingurukoekin alderatuta eskasa da". 6,94tik gorakoa izatea da ohikoa. Ur-hornidura zerbitzuak ere erreferentziatzko batezbestekoa (7,56) baino nota baxuagoa izan du (7,02).

Udal-zerbitzuei dagokienez, herritarren eskakizun nagusiak dira: igerilekuak (%16,5), garraio publikoa hobetzea (%12,6) eta

kiroldegia (%9,3). Ongien dabil-tzan udal-zerbitzuak, berriz, honakoak dira: Torresoroa, irakaskuntza oro har eta udalaren administrazioa.

Irakaskuntzak nota altua

Haurren irakaskuntzaren kalitateak erreferentziatzko batezbestekoa (7,47) gainditzen du, 7,87ko notarekin. Kirolen eta gizarte zerbitzuen arloei dagokienez ere, balorazioak erreferentziatzko ehunekoen gainetik daude: kirolen sailak 6,53 puntu izan ditu (6,38 da erreferentziatzkoa); gizarte zerbitzuei 7,29 puntu eman dizkiete (6,70 da erreferentziatzkoa). Aisia eta kultura zerbitzuei dagokienez, 6,49 puntu eman dizkiete; batezbestekoa 6,62 da.

Udalaren kudeaketa 6,63 punturekin baloratu dute, (5,93 da batezbestekoa). Udalak egindako lan positibotzat jo dituzte obrak, Torresoroa eta patioa estaltzea; negatibotzat, berriz, zirkulazioaren kudeaketa, igerilekua ez egitea eta garbitasun falta.

Saharako umeak udan etxean hartzeko kanpainan izena emateko epea zabalik dago oraindik

7 eta 12 urte bitarteko haurrak saharar errefuxiatu kanpalekue-tatik atera eta, bide batez, desertuan udako bi hilabete horietan dauden tenperatura altuetatik babestea da *Oporrak bakean* programaren helburuetako bat. Udan etxean Saharako ume bat hartu nahi dutenak Leire Unamunorekin edo Anelkarrekin jar daitezke harremanetan.

Gaixoen Eguna egingo dute domekan parrokiari, eta oliodura sakramenturik ez da izango

Etzi, domeka, maiatzak 29, Gaixoen Eguna egingo dute Antzuolako parrokiari, 11:00etan. Oliodura sakramenturik ez da egingo elizkizunean. Norbaitek oliodura sakramentua jaso nahi izanez gero, parrokiako batzordearekin jarri behar du harremanetan. Bestalde, norbaitek mezetara joateko laguntza behar badu, batzordeari jakinarazi beharko dio.

Oihulari Klown taldeko Tim Bowley eta Charo Pita ipuin-kontalarien saioa gaur Torresoroan

Gaur, egubakoitza, ipuin-kontalarien saioa izango dugu Torresoroan, 22:30ean. Tim Bowley ipuin-kontalari britainiarrak istoriak kontatzen liluratzen du publikoak; hogeitau urte daramatza Europa eta Amerikan barrena. Harekin batera, eta itzultzaile gisa, Charo Pita kontalaria aritzen da. Mundu osoko kultura ezberdinetako ahozko ipuinak aurkeztuko dituzte: Arturo Erregearen kondairak, maitagarrien ipuin europarrak, istorio zeltak...

OHARRAK

1975EKOEN KINTADA

Ekainaren 11n Bergaran egingo dute bazkaria 1975ean jaiotako antzuolarrek. Joan nahi duenak 20 euro sartu beharko ditu kontu honetan: 2101 0023 52 0012821039. Ekainaren 11n (Bergarako jaiak) 13:00etarako egin dute hitzordua Ariznoa tabernan, potea hasteko; bazkaltzerako joan behar duena ager dadila 14:30erako Azpeitxi jaietxean.

TUTOREA KZGUNEAN

Martitzenetan egoten da KZguneko tutorea liburutegian, 09:30etik 13:30era. Internetekin eta ordenagailuekin lotutako zenbait ikastaro egin daitezke.

UEMA EGUNA

Udaletxean eros daitezke Bergaran ekainaren 4an ospatuko den Uema eguneko herri-bazkarirako txartelak: 18 euro nagusia; 12 euro umeena.

BALORAZIOAK

ADIERAZLEAK	EMAITZA*
Antzuola bizileku gisa	7,91
Haurren irakaskuntza	7,87
Etxebizitzaren kalitatea	7,57
Euskara	7,55
Satisfazio orokorra	7,39
Gizarte zerbitzuak	7,29
Alkatearen lana	7,23
Antzuolako jaiak	7,07
Ur hornikuntza	7,02
Osasun zerbitzuak	6,67
Udaleko kudeatzaileen lana	6,63
Kirola	6,53
Hiritarren segurtasuna	6,52
Kultura eta aisialdia	6,49
Kaleen argiztapena	6,44
Gazteria	6,33
Bide publikoen egoera	6,10
Zergen bilketa	6,03
Berdeguneen kalitatea	5,88
Lan egiteko aukerak	5,80
Trafikoa	5,73
Berdeguneen kopurua	5,14

*Erantzunen batz bestekoa, 1 baxuena eta 10 altuena izanik.

MUJKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zeorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

SARI NAGUSIA



Asteburu bat Txohebenta landetxean

Hondartzatik lau kilometrotara!

Gosariak, mundialak!

Goza ezazu Txohebenta landetxean!

TXOPEBENTA LANDETXEAK

Basetxetas
GAUTEGIZ-ARTEAGA (Bizkaia)
Tel.: 94 625 49 23 / 629 45 50 79
www.nekatur.net/txohebenta
www.toprural.com

MUNDUMIRA



Mundumira

Bazkide egiteko

Tel.: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
www.goienakluba.com
Urteko kuota: 48€

goienakluba™
Abantailaz betetako kluba!

Herritarren konpromiso barik, Txirritola desagertzeko zorian

Ekainaren 2an, batzar orokorra: jende eta haize berriak behar ditu elkarteak

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Txirritola euskara elkartearen etorkizuna, 100 bazkide inguru baditu ere, iluna da oso. Azken bi urteetan sei lagun aritu dira zuzendaritza taldean, duela 11 urte inguru sortu zen euskara elkartearen biziraupena bermatzeko: Rosa Mondragon, Xabier Herrarte, Eskarne Ugarte, Olatz Altuna, Iraia Elortza eta, 2010eko batzar orokorraren ostean, David Jauregi.

2009an desagertzeko zorian izan zen: aurrekoek utzi eta talde berria aukeratzeko lehen deialdian inor gutxi aurkeztu zen. Bada, ezohiko bigarren deialdi bat egin behar izan zuten; orduan osatu zen egungo zuzendaritza taldea. Zergatik horren jende gutxi? Hainbat faktore daude: "Nolabaiteko konpromisoa eskatzen du euskarerikiko eta hainbat ekimen antolatzeke. Eta Txirritola ez da, adibidez, Trikitixa taldea: seme-alaba Trikitixa taldean izaten duena behartuta dago nola edo hala taldearen ekimenetan parte hartzea. Txirritolaren kasuan erabateko borondatea behar da", uste du Rosa Mondragonek. Bestalde, Xabier Herrarteren arabera, ez da erraza "halako herri txiki baten"



Egungo taldea: Ugarte, Herrarte, Mondragon eta Altuna. | JOKIN BEREZIARTUA

euskara elkartearen lan egingo duen jende ezberdina aurkitzea: "Txirritolan, beste elkarteetan ez bezala, borondatez aurkeztu dena sartzen da zuzendaritza taldean. Hau da, ez dago aukeraketa prozesurik. Eta 11 urteotan borondatez aurkeztu direnetako asko nekatu egin dira. Kopuru aldetik ere ez dago jende larregi konpromisoa hartzeko gertu dagoenik".

Batzar irekia ekainaren 2an

Bazkide edo ez bazkide, aramaioar guztiak daude gonbidatuta ekainaren 2an (19:00) Kultur etxean egingo den batzar orokorrera.

Egungo taldeak argi utzi du: "Jende berria behar dugu, belaualdi aldaketa bat. Pertsona berriez gain, ideia berriak behar ditugu. Txirritolak aldaketa sakona behar du".



Martitzeneko bisitako une bat, Azkoaga auzora helduta. | AMAIA TXINTXURRETA

Amerikarren bisita: lehen sektorea bertatik bertara ezagutzea helburu

A. TXINTXURRETA / J.B. | ARAMAIO

EHNE Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak antolatuta, Aramaio bisitatu zuten martitzenean Ameriketako Estatu Batuetatik etorritako 16 lagunek. Euskal Herriko lehen sektoreak egun bizi duen egoera ezagutzera etorri ziren; tartean, Aramaioko baserriarrak eta bertako landa ingurunea.

Asier Agirre alkateak Aramaio duela zenbait urte nolakoa zen azaldu zien: kontatu zien baserria izan dela bertako ekonomia motora. Horrez gain, AHTk eragindako kalteak ere izan zituzten hizpide, azpiegiturak hartu dituen eta hartuko dituen lurak erakutsita.

Esperientzia aberasgarria

Bestalde, Aramaio Baserri Barri proiektuaren berri ere eman zieten. ABBren helburu nagusia azaldu zieten; hau da, bertako ekoizleek bertako kontsumitzaileekin bitartekaririk gabeko salerosketa bultzatzea. Amaieran, Aramaioko baserriarrek egindako sagar-zukua eskaini zieten.

Udal ordezkari, herritar zein bisitariendako egun aberasgarria izan zen; esperientziak elkartrukatuz zituzten. Gainera, amerikarrek hemen ikusi eta ikasitakoarekin dokumentala egingo dute. Izan ere, Nikaragua, Mozambique eta Europakoek gure baserriarren antzeko arazoak dituzte.

Hirugarrenez musika oldarkorrek dator Eguzkierripa Rock

Bihar ospatuko dute Andra Mari ermitan Eguzkierripa Rock jaialdiaren hirugarren edizioa. Egun osorako plana prestatu du Gazte Asanbladak: poteoa, herri bazkaria, jokoak eta zuzeneko musika izango dira. Zuzeneko musika 20:00etan hasiko da; gertuko talde gazteak nagusi: Miseria, Kate's Maniacs, Gazte Iraultza, Alta Tension eta Kañeria 13. Garagartzako taldea beste behin igoko da agertokira, iazko jailetan azken orduan huts egin zutelako.

La Mexicana Clandestina taldearen saioa bihar Iturrietan

Kontzertu berezia izango da bihar Iturrieta sagardotegiko terrazan, 19:00etan: La Mexicana Clandestina. Inor axolagabe utziko ez duen kontzertua eskainiko du Araba eta Mexiko jatorri duen talde mitikoak. Urte batzuk gelditu ondoren indartsu bueltatu dira agertokietara. Bada, oraingoan, Aramaion izango ditugu. Talde berezia denik ez dago zalantzarik: besteak beste, musika sorkuntza askearen aldeko apustua da euren.

ELGETA



Astelenean hasi zituzten muntaia lanak frontoian; Euskal Herriko boulder txapelketa jokatu da bertan. | L.Z.

Oxel Erostarbe: "Lasai hartu eta disfrutatu Mundumirarekin"

Hiru orduko txandatan banatuta herriko 190 boluntario ariko dira lanean

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Hasi dira Mundumirako lehenengo protagonistak Elgetara iristen eta hasi dira muntaia lanak. Herrigunea oinezkoena da, autoendako zirkulazioa itxita dago Torrealdeko sarreran eta Kataian eta semaforoak argi laranjarekin daude. Hori izango da egoera astelenean goizera arte. Epe horretan Bergararako joan-etorriak Torrealdeko eta Salbador osteko kaletik egin beharko dira.

Aparkalekua poligonoan

Elgetako aparkaleku nagusia Pagatzako industrialdean egongo da hiru egunotan. Industrialdeko hainbat enpresak baimena eman dute euren aparkalekuak erabiltzeko, eta autoak baterian aparkatu beharko dira. Herriko hainbat garaje ezin izango dira erabili datozen hiru egunotan; hala, egoera horretan dauden herritarrei eskatzen zaie autoa mugitzea aurreikusten badute poligonoan aparkatzeko.

Hiru egunotan debekatuta egongo da aparkatzea Salbador osteko kalean (bi noranzko izateko), Ostatu ondoko parkingean (autokarabanen erakusketa), Artekaleko aparkalekuan (musika taldeendako) eta Berraondokua industrialdeko hamar bat aparkalekuan (autobusak buelta eman ahal izateko). Gainera, baliteke San Roke osteko garajeetan zailtasunak izatea autoak sartzeko eta irteteko.

DATUA

190

BOLUNTARIO

Hiru orduko txandatan antolatuta 190 bat elgetar ariko dira jo eta su lanean. Garbiketan eta zirkulazio antolaketa ariko dira.

Info-puntua Torrezaharren

Informazio gunea Torrezaharren egongo da eta Ertzaintzaren bi patruila herrian izango dira, besteak beste zirkulazio arazoak saihesteko. Herriko sarreretan argiztapen berezia ipini da eta herrira datozen ibilgailuek abiadura moteldu dezaten hainbat kartel ipiniko dira Elgetan Mundumira dela adierazteko. Patruilatan banatuta, azkenik, hainbat herritar ariko dira lanean.

OXEL EROSTARBE | JARDUNEKO ALKATEA

"Kosta egingo da berriz ere maila honetako festibala herrira ekartzea"

Apiril hasieran egin zuten lehenengo herri batzordea Elgetan eta martitzenean, azkena. Gauza asko lotu behar izan dira epe horretan eta ziur sortuko direla azken orduko ezusteak. Alkatea, baina, pozik dago. Jakin badaki datozen egunak lan handikoak izango direla, baina baikor da. Elgetarrei gauzak lasai hartzeko eta Mundumira jaiatzeko disfrutatzeko tarteak hartzeko eskatu die.

Erroka handia, ezta?

Zalantza barik, baina aurrera aterako dugu. Herrian sekula eduki



Oxel Erostarbe. | L.Z.

ez dugun moduko jaiak izango dugu. Kosta egingo da berriz ere maila honetako festibala herrira ekartzea.

Azken mezua herritarrei?

Lasai hartzeko eta batez ere Mundumirarekin disfrutatzeko. Egunotan

jende mordoia etorriko da Elgetara eta hainbat eragozpen sortuko ditu horrek, baina benetan uste dugu pena merezi duela. Elgetarrok erakutsiko dugu kanpotik datorren jendea nola hartzen dugun.

Elgetako bolo taldeetako bost kideri omenaldia Azpeitian

L.Z. | ELGETA

Zapatuan, maiatzak 28, emango diote amaiera Gipuzkoako 42. hiru txirlo txapelketari. Azpeitiko Garmendipe bolatokiaren jardunaldi hori, 12:30ean hasita. Aurten bi talde izan ditu Elgetak txapelketan; aspaldiko ordezkari-tzarik zabalena.

Sari banaketarekin batera Bolari Eguna ospatuko dute Lau Bide jatetxeko bazkalostean. Sei lagun omenduko dituzte bertan, tartean Elgetak txapelketan izan dituen bost ordezkari; Antonio Antxustegi, Segundo Pagaegi, Sabin Arriaga, Antonio Ibarluzea eta Antolin Arizmendiarrrieta.

Sailkapenak

Txapelketako azken jardunaldiaren faltan, 19 txirlo jota Sabin Arriaga da Elgetako bi taldeetako bolari onena. Sailkapeneko 12. postuan dago. Segundo Pagaegik 18 txirlo jo ditu eta Sebastian Arantzabalak 15.

Nagusien txapelketa eta Lehendakari saria dituzte eskuragarri Elgetako ordezkariak; nagusietan Sabin Arriaga da lehena eta Segundo Pagaegi bigarrena. Lehendakari sarian, berriz, Pagaegi doa aurretik sailkapenean 13 txirlo jota.

Taldeetako txapelketan, Elgetako A taldea laugarren postuan dago.

Sanjuanekin lotutako argazkiak eskatu dituzte erakusketa egiteko

L.Z. | ELGETA

Denok daukagu sanjuanekin lotutako argazkiak bat; sanjuan sua, sanjuan bezperako ekitaldien prestaketa lanak...

Bada, Mireia Berriozabalek, Ane Elortzak eta Maialen Elortzak erakusketa egin nahi dute eta argazkiak biltzeko ekimena ipini dute martxan. Lehengo eta gaur egungo argazkiak elkar-tu nahi dituzte eta herritarren parte-hartzea eskatu dute.

Argazki erakusketa ekainaren 20tik 30era bitartean ipiniko dute Espaloia Kafe Antzokian. Inork argazkirik edukiz gero kultura etxean, ludoteka-gazte-

lekuan, antzokian eta udaletxean jasoko dituzte ekainaren 15era arte.

Garrantzitsua da argazkiarekin batera jabearen izen-abizenak ipintzea; izan ere, argazki guztiak itzuli egingo dituzte erakusketa amaitutakoan.

San Juan prestatzen

Ludotekako eta gaztelekuko gazteek sanjuan kantua, dantzak eta sua prestatuko dituzte aurten, besteak beste. Ekaineko aisialdi eskaintzaren barruan hainbat ekimen prestatu dituzte hori horrela izan dadin.

Domekan, maiatzaren 29an, ez da 'Herrixa dantzan' egingo

"Mundumirako jaiak dela-eta, hil honetako *Herrixa dantzan* saioa bertan behera uztea erabaki dugu", adierazi dute antolatzaileek. Jakinarazi dute dantzarako hurrengo aukera ekainaren 18an, zapatua, izango dela, Elgetan. Koadrilen Egunean izango da hori, Arrabots taldearekin.

Ekainaren 12ko eskola txikien jaira joateko autobusa doan

Abaltzisketan ospatuko da aurten eskola txikien jaiak. Guraso elkarrekin autobusa ipiniko du, doan, eta alde aurretik izena emateko eskatu du. Maiatzaren 31ra arte dago horretarako. Postontzira bota familiarren izen-abizenak eta autobusa erabiliko duen kide kopurua.

LEINTZ GATZAGA

Beteranoen arteko pilota partiduak jokatu dituzte domekan

MIRIRI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Beteranoen txanda izango da domekan Gatzagako pilotalekuan. Dorleta pilota txapelketari dagozkion partiduak jokatu dituzte, sei guztira (09:00). Mauri Zubillagak antolatutako txapelketak gero eta jarraitzaile gehiago dakartza Gatzagara eta giro bikaina sortzen dute.

Hona hemen jokatu dituzten partiduak: lehen mailako beteranoak: Lizarralde eta Altzola (Aretxabaleta), Arostegi eta Belategiren aurka (Arrasate); Zuazua eta Pozo (Arrasate), Errasti eta Uriarteren aurka (Aretxabaleta).

Bigarren mailako beteranoak: Jauregi eta Pildain (Arrasate), Azkona eta Etxenagusien aurka

(Eskoriatza); Heriz eta Bengoa, Barandiaran eta Aizpururen aurka (gatzagarrak laurak); Arrese eta Pagaldai (Eskoriatza), Azpikueta eta Kortaren aurka (Arrasate); eta Eraña eta Atxa, Durana eta Galdosen aurka (aretxabaletarrak laurak).

Hona hemen gainerako kategorietan lehenengo dabilzanak: benjamin B mailan: Eraña eta Zubiaga (Eskoriatza); benjamin A mailan: Etxezarreta eta Murgiondo (Arrasate); eta alebinitan: Murua eta Errarte (Arrasate).

Hirugarren faseari dagokion proiektua eguneratzea onartu du udalbatzak

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Maiatzaren 12an egindako osoko bilkuran, hirugarren faseko proiektua eguneratzea erabaki zuen udalbatzak. Herrian egiteko dauden azpiegitura lanei dagozkien hirugarren faseko obrak, eta proiektuak eguneratu beharra zuela uste izan du udalbatzak, denbora luzea pasatu da-eta egin zutenetik.

Era berean, orduan egindako aurrekontua eguneratzeko eskatu dute.

Hirugarren fase horrendako ez dute hasiera datarik zehaztuta, baina Eusebio Villar jarduneko alkatearen esanetan, dirulaguntzaren bat lortuz gero aurten hasi gurako lukete, lehenbailehen bukatzeko lanok.



Kilian Jornet, iazko edizioan, helmuga gurutzatu zuen unean. | ZEGAMA-AIZKORRI

MENDI LASTERKETA

"Kilian Jornet jaten aparte eman behar zaien horietakoa da, kirolari aparta"

Lleidakoak Zegama-Aizkorri lasterketan egon den bakoitzean irabazi egin du

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Hirutan egon da Kilian Jornet atleta kataluniarra Zegama-Aizkorri maratoian, eta hiruretan irabazi egin du. Domekan irteera puntuan egongo da: "Jaten aparte eman behar zaien horietakoa da, kirolari aparta. Horrek egiten dituenak ez ditu beste inork egiten, eta lortu dituen emaitzek erakusten dute hori",

adierazi digu lasterketako antolatzaile Alberto Aierbek, domekako probarako markaketa lanak egiten dabilen bitartean. "Maizta hasieran oraindik eskiatzen zebilen, eta eskiak alde batera utzi, Australiara joan eta 100 kilometrotako lasterketa bat irabazita itzuli da, eta probako errekorra onduta. Gizon horrek egiten duena ez da normala".

Ez dirudi Jorneti inork itzal egingo dionik: "Errusiako korrikalari batzuk datoz, baina ez dakigu ze maila erakutsiko duten".

Zegama Aizkorriko bederatzidiziotan parte hartu duten korrikalariei -hamaika- omenaldia egingo diete, eta tartean dago Oñatiko Joxean Larrea. Emaitzak, asteleheneko *Goiena* paperean.

FUTBOLA

Andoni Azkargortak zuzenduko du Aloña Mendi

Antzuolakoa Eibarko gazteekin egon da aurten

X.U. | OÑATI

Andoni Azkargorta antzuolarrak entrenatuko du Aloña Mendi taldea. Astelehenean *Harmailatik* saioan ez zuen ezer aurreratu nahi izan, Eibarkoek hala xe eskatu ziotelako. Baina askoren ahotan zebilena publiko egin da, Eibar utzi eta ohorezko erregional mailara itzuli da, ondo ezagutzen duen kategoriara.

Eibarko ohorezko gazte mailako taldean egin du Andoni Azkargortak azken denboraldia: "Eta urte polita izan da, gazteekin lan egitea ezberdina da, eta Eibarren igartzen da emaitzak lortzeko presioa". Aloña Mendi, baina, behin baino gehiagotan



Andoni Azkargorta. | GOIENA

ahalegindu da Azkargorta fitxatzen, eta orain eman du baietza. Antzuolako taldean hasi zen entrenatzaile lanetan Azkargorta, eta Bergaran eta Mondran ere ibili da.

MENDIA

Ekaineko bigarren astebururako eskaintza bikoitza du Besaide elkarteak, bi irteera antolatuta

Ekainaren 11ko eta 12ko aste bukaerarako bi irteera prestatu ditu Besaidek: batetik, GR10 ibilbidearen barruan Besaidekoak Iparla (1.044 metro) mendira joango dira. Bidarrai eta Baigorri artean zutitzen den mendia da Iparla, amildegi ikusgarriak dituena ekialdean. Eta bigarren proposamena Pirinioetara asteburu-pasa joatekoa da, Panticosara. Mendi zeharkaldia Tenderena eta Bujaruelo ingurura egingo dute. Izen-emateak ekainaren 6an, 7an eta 8an (19:30-20:30).



Aukerazko

IBILGAILUAK

salgai



14.500€-tik aurrera

> FORD FOCUS

2011 | Diesela | 0 Km



Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

- Ford Galaxy TDCI 21.900 €
2009 | Diesela | Granatea | 59.000 Km
- Ford Fiesta 70 ZP 10.300 €
2010 | Diesela | Urdina | 11.000 Km
- Ford Focus TDCI 140 ZP 20.500 €
2011 | Diesela | Urdina | 0 Km.
- Ford Kuga TDCI 140 ZP 28.900 €
2011 | Diesela | Beltza | 4.000 Km
- Audi A3 TDI 140 Sportbreak-SPORT 18.900 €
2008 | Diesela | Gorria | 89.000 Km
- Seat Leon TDI 105 ZP Sport 11.700 €
2008 | Diesela | Beltza | 48.000 Km
- Seat Leon TDI 140 ZP 9.700 €
2006 | Diesela | Zuria | 110.000 Km
- BMW 360 D. Automatic Pack M 167 ZP 17.500 €
2006 | Diesela | Beltza | 110.000 Km
- Peugeot SW Sport Pack 2000 HDI 9.800 €
2007 | Diesela | Grisa | 90.000 Km
- Ford Transit Nugget 2.0 TDCI 41.500 €
KM 0 (Berria) | Diesela | Plata edo aukeran



28.700 €

> Audi A4 2.0 TDI 143 DPV AVANT

2010 | Diesela | 29.649 Km



- Audi A3 1.9 TDI E DPV ATTRACTION 18.400 €
2010 | Diesela | Grisa | 24.634 Km
- Volkswagen Bora 1.9 TDI CONCEPTLINE 100BHP 7.900 €
2005 | Diesela | Grisa | 131.000 Km
- Renault Clio CAMPUS AUTHENTIQUE 1.5 DCI 65 6.600 €
2007 | Diesela | Txuria | 103.932 Km
- Fiat Punto 1.9 JTD DYNAMIC 3.900 €
2002 | Diesela | Urdina | 176.372 Km
- Audi A4 2.0 TDI E 136BHP DPV 26.900 €
2010 | Diesela | Beltza | 22.552 Km
- Volkswagen Polo 1.2 ADVANCE 10.500 €
2010 | Gasolina | Txuria | 13.805 Km
- Seat Exeo 2.0 TDI 120 PS DPV REFERENCE ST 20.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- Seat Altea XI 1.6 TDI 105 PS STYLE ECOMOTIVE 19.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- Skoda Scout 2.0 TDI Quattro 25.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 5.300 Km
- Seat Leon 1.6 TDI 105 16.500 €
2010 | Diesela | Grisa | 50 Km

Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70



17.250 €

> Citroen C5 Hdi Premier 110

2009 | Diesela | 38.000 Km



SAN ANDRES AUZOA 5.
ARRASATE
TEL.: 943 79 45 22.



Debagoieneko
Kontzesionario ofiziala

- Peugeot 308 1.6HDI Sport FAP 6 vel 11.850 €
2008 | Diesela | Beltza | 59.000 Km
- Peugeot 307 SW 1.6HDI Pack+ 110 12250 €
2008 | Diesela | Beltza | 37.100 Km
- Citroen C3 1.4HDI Cool 8.999 €
2009 | Diesela | Gris argia | 33750 Km
- Citroen C5 1.6HDI S 17.500 €
2009 | Diesela | Beltza | 37.000 Km
- Citroen C5 2.2HDI Exclusive CAS 31000 €
2010 | Diesela | Gris iluna | 1000 Km
- Citroen CC4 1.6HDI Sport 17500 €
2011 | Diesela | Txuria | 1250 Km
- Citroen GRAND C4 PICASSO Hdi 110 65000 €
2007 | Diesela | Nocciola | 65000 Km
- Citroen GRAND C4 PICASSO CMP 138 14500 €
2007 | Diesela | Alumini Grisa | 53300 Km
- PEUGEOT 807 SV Hdi 138 14500 €
2007 | Diesela | Alumini Grisa | 53300 Km

MENDI LASTERKETA

Gabez Takarraran proba egingo dute Eskoriatzan ekainaren 11n, Atxorrotzera eta Asentziora igota

- ▶ Lasterketak 20 kilometro izango ditu, eta mila metro pasatxoko desnibel positiboa
- ▶ Izen-emate epea zabalik dago, baina egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera

XABIER URTZELAI | ESKORIATZA

Eskoriatzako kirol elkarteak antolatuta Debagoienean gauez egiten den lehenengo mendi lasterketa izango dugu ekainaren 11n, Gabez Takarraran izenekoa. Hala, antolatzaile lanetan dabilen Julen Ezeiza eskoriatzarrak azaldu digu lasterketa antolatzearen zergatia: "Herrian kirol hitzordu gutxi izaten ditugu, eta hain zuzen horixe bultzatu nahi genuen, Eskoriatzan girotxoa sortuko duen lasterketa bat. Azken batean, herriko gaztetxoek ikus dezatela, kanpora joan barik, herrian bertan horrelako proba bat. Izan ere, lehenago Eskoriatzan hainbat lasterketa eta kros antolatzen ziren, baina proba horiek galdu egin ziren".

Eskoriatza, bi aldetatik

Antolatzaileek 20 kilometroko ibilbidea prestatu dute Eskoriatzako inguruetan: "Eskoriatzako bi aldeak zeharkatuko dituen ibilbidea egin nahi izan dugu, hegoaldean eta iparraldean, Atxorrotz ingurua batetik, eta Asentziokoa bestetik. Eta tartean [7.



Hiru Handietan moduan, Eskoriatzan ere gauez irtengo dira lasterkariak. | X.U.

kilometroan] korrikalariak Eskoriatzatik pasako dira, eta herriarrek bertan jarraitu ahal izango dute proba".

Lasterketako datu teknikoei dagokienez, diogun moduan 20 kilometro izango ditu probak, eta 1.024 metroko desnibel positiboa. Lasterketa 23:00etan hasiko dute, eta antolatzaileek goizaldeko 04:00etan itxiko dute kontrola: "Norberak bere linterna [frontala] eramatea ezinbestekoa da, eta hor egongo da lasterketaren xarma, ilargipean korrika egitea, alegia".

Izen-ematea zabalik

Gabez Takarraran lasterketa egiteko dagoeneko zabalik dago izen-ematea lasterketa egunean ere eman ahal da izena. Mendian federatuta daudenek 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta federatuta ez daudenek 25 euro. Izena aurrez eman nahi duenak 2101 0038 58 0010892354 kontu korrantean egin behar du ordainketa, eta lasterketa egunean, dortsalak banatzen dituztenean ordainagiria aurkeztu, eta fede-

ratu txartela -plazan egingo dute hori, 22:00ak baino lehenago.

Jendearen erantzunaren zain

Berriak diren lasterketa guztien moduan, antolatzaileak irrikan daude probak ze erantzun izango duen jakiteko: "Horregatik ez dugu nahi izan zarata handiegirik atera, antolatzaile moduan guk ere lasterketari neurria hartu nahi diogulako. Baina, proba polita izango dela uste dugu".

Bada, urteko sasoi honetan egoten diren lasterketak ikusita -Zegama Aizkorri domekan, esaterako- ibarrean asko dira lasterketa batetik bestera ibiltzen direnak. Baina, hau gauez da, eta etxean bertan.

ESANAK

"Herriko giroa sustatzeko asmoz antolatu dugu gaueko lasterketa"

"Hor dago proba honen xarma; hau da, ilargipean korrika egitea"

JULEN EZEIZA | ANTOLATZAILEA

FUTBOLA

Liga amaitzeko Mondrak eta Aloñak jokatuko dute etxean

X.U. | ARRASATE

Asteburuan jokatuko dute oho-rezko erregional mailan ligako 34. jardunaldia, azkena. Eta azken partidu horretan Arrasateko eta Oñatiko taldeek agurtuko dituzte zaleak etxean, joan den astean Bergarak eta UDAk egin bezala -azken horiek oso ondo, gainera.

Gurekoek ez dute ezer jokoan, ez goian eta ez behean, baina partidu bereziak izango dira; askok agur esango dute. Mondran jokalaria askok utziko dute batera futbola; hutsuneak betetzen erronka galanta izango du Iban Rodriguezek. Hiru-

garren mailara igo nahi duen Hernaniren kontra jokatuko dute, 18:00etan

Aloñan entrenatzaile berria da albiste, Andoni Azkargorta. Eta Antzuolakoak, seguruenik, domekan (16:30) gertutik jarraituko du taldeak Pasajesen kontra egingo duen lana. Zumaian jokatuko du Bergarak, asteburuan ezkonduko den Oskar Maiztegiren hutsuneaz; badi-rudi entrenatzaileak datorren denboraldian atsedena hartuko duela. Aretxabaletaren egungo zuzendaritzarendako, azkenik, Pasai Antxoko partidua izango da azkena (bihar, 16:30).



MENDIA

Hasi dira kometak erabiltzen

Naturgas/BBK Transantartika 2011ko kideek, azkenean, aldeko izan dute haizea, eta horri esker aurrerapen handiak egin dituzte bidean. Azken egunotan haize-ufadek lana erraztu dute, baina muturreko tenperaturei egin behar izan diete aurre (zero azpitik 30 gradurainokoak). Hala, martitzenean atera zieten kometei etekin handiena, 9 orduz kometekin ibili ostean 139 kilometro egin zituzten-eta.



ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA

ERAIKUNTZAKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA APLIKAZIOA · OBRA ETA PLANEN BURUTZAPENA
GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA · ERIZAINZARAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK

AURREMARIKULAZIO EPEA EKAINAREN 1 ETIK 1 OERA

Orain da garaia!

943 77 20 25 // WWW.ARIZMENDIPRO.EU





Jatetxe Gida



Arantzazuko Santutegia

Arantzazuko auzoa, 8 / OÑATI
943 78 13 13

Eskaintza www.hotelsantuariodearantzazu.com

- 40 logela.
- 200 pertsonentzako jangela.
- Eguneko menua, itundutako menuak eta aste-bururako menu bereziak.
- Jaunartzeak, ezkontzak eta bazkari bereziak.
- Enpresentzako aretoak eta bazkariak.
- Eta orain sagardotegiko menua.

Egunero zabalik



Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita.



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72

Eskaintza www.errekajatetxea.eu

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93

iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita.
- Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo sahieskiarekin).
- Bertako sagardoa.
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauean 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona gutxienez).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomía 2009.



Pildain

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 11 65

Eskaintza

- Eguneko menua, karta, plater konbinatuak, eta bokatak.
- Astebukaeratan menu bereziak.
- Txerrikumea, sahieskia, bildotsa,... egur labean enkarguz.
- Eskatutako bertan jateko edo etxera eramateko.
- Jangela independientea su baxuarekin.

Astelehenetan itxita



Soraluze

Arantzazuko bidea, 1 km / OÑATI
943 71 61 79

www.soraluzeostatua.es
info@soraluzeostatua.es

Eskaintza

- Karta.
- Bi jangela.
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak.
- Aste bukaerako menu bereziak.
- Eguneko menuak.

Domeka gauean itxita



Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

KULTURA

Kultura eta jaia bat eginda

- ▶ Gaur hasi eta domekara arte Mundumira jaialdia ospatuko dute Elgetan
- ▶ Aurtengo nobedadeak dira kanpatzeko lekua eta Irrien Lagunak klubaren gunea

ARANTZAZU EZKIBEL | ELGETA

Gaur hasi eta domekara arte Elgeta munduari begira jarriko da. Baina, era berean, Debagoiena Elgetara begira egongo da. Zazpigarren urtez jarraian munduko kulturen festa egingo da gurean.

Musika, kale animazioa, natura eta gastronomia dira Mundumirako lau zutabe nagusiak. Aurtengo egitarauak ere hamaika proposamen batzen ditu bere baitan. Musikari dago-kionez, Los Delinquentes talde andaluziarra izango da izarra. 1998an, Jerez de la Fronteran (Cadiz), Miguel Angel Benitez *Er Migue* eta Marcos del Ojo *Er Canijo de Jere* bikoteak osatu zuen taldea. Haiei, Diego Pozo *Er Raton* gehitu zitzaizen geroago. Andaluziar jatorrizko musika, flamenkoa-eta, poparekin, funkarekin, bluesarekin eta rockarekin nahasten dute. Eta abes-tietako letrek ematen diete berezitasun puntua.

Herriko Plazan jarri duten agertoki nagusian -Mundumira agertokia- izango da Los Delinquentesen kontzertua bihar, zapatua, 23:00etan.

Bertakoak eta kanpokoak

Zapatuko kontzertu nagusiaz gain, beste hainbat taldek ere jardungo dute Elgetan gaurtik hasita. Orotara, 30 taldek animatuko dituzte Elgetako kaleak. Gaur, esaterako, The Billie Jeans talde donostiarrak girotuko du jaia; 20:30ean Mundumira agertokian jardungo dute eta 00:00etan Espaloian.

Bihar, 12:00etan, Kubako doinuek hartuko dute plaza. Habana Con Kola taldeak Kubako musika tradizionalaz girotuko



Los Delinquentes talde andaluziarrak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua. | GOIENA

du plaza eta ziur han batutakoek gustura egingo dutela dantza. Gainera, Mozambique, Frantzia, Brasil eta Senegalgo taldeak ere arituko dira Elgetan.

Baina Mundumira ez dago munduari begira bakarrik, munduari bertako kultura erakusteko gogoz ere badago. Hala, Mery May eta Ain_1 taldeek

euren lekutxoia izango dute Elgetan. Arrasateko neskek kontzertua eskainiko dute domekan, 12:00etan, Mundumira agertokian. Folk-rock doinuz

gozatzeko aukera paregabea izango da.

Kamiseta solidarioak

Ternuarekin elkarlanean elkartasun kamiseta diseinatu dute aurtengoz. 24 eurotan jarri dituzte salgai kamisetak (*Euskal Herria* aldizkariko bazkideendako 18 euro). Saldutako kamiseta bakoitzeko 3 euro bailarako elkarrekin aurkeztu dituzten proiektuetarako bideratuko dira. Oñatiko Bubulum elkartearendako, Salmenta Solidarioarendako (Arrasate) eta Eskoriatzako Chiapas elkartearendako izango da dirua.

Hainbat gune

Mundumirako gune nagusia Herriko Plaza izango da. Salvador kalean artisau eta gastronomia postuak jarriko dituzte, eta San Roke kalean bestelako postuak: mendi eta senderismo azoka. Maala parkean, eskola ondoan, gobernuz kanpoko era-32. orrialdean, jarraipena.

Autobus ordutegiak

▶ **ANTZUOLA** Bergara Elgeta linea zapatuan 10:00etatik 04:00etara hiru orduan behin. Domekan 10:00etatik 19:00etara hiru orduan behin.

▶ **BERGARA** 15 minutuan behin 10:00etatik 05:15era zapatuan eta 10:00etatik 20:45era domekan.

▶ **LEINTZ BAILARA** Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Elgeta linea.

Zapatuan 10:00etatik 05:00etara ordu erdian behin. Itzulerakoa 11:00etatik 06:00etara ordu erdian behin. Domekan, 10:00etatik 20:00etara ordu erdian behin eta itzulerako 11:00etatik 22:30era ordu erdian behin.

▶ **OÑATI** Bergara Elgeta linea 11:30etik 05:30era hiru orduan behin. Domekan 11:30etik 20:30era hiru orduan behin.



Gastronomiak parte berezia izaten du Mundumiran. | JULIO CALLEJA

Mundumira
munduko kulturen festa

maiatzak 27, 28 eta 29
Elgeta- DEBAGOIENA

Munduko musika Los delinquentes, Dub Inc, The Billie Jeans, Habana con Kola, Mery May + AIN_1, Andrankan, Kukubiltxo, La Troba Kung-Fú, Jorginho, Moya Kalongo, Oreindik. Irrien lagunak kluba, EH-ko Boulder Txapelketa, Umeen gunea, Kale animazioa, Artisautza eta munduko zapoak, Elkartasun foroa...



- Debagoieneko herri guztietatik autobusak.
- Egunez eta guez autobus zerbitzu bereziak.

Informazio gehiago:

www.pesa.net
902 10 12 10

www.turismodebagoiena.com
943 79 64 63 • 943 71 89 11

www.mundumirafesta.com



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA
TURISMOA

MUNDUMIRAKO EGITARUA

EGUBAKOITZA, 27

06:00 Hiru tenpluen txangoa Loiola, Antigua eta Arantzazu lotuz GR-120 (45 Km).

19:00 Mahai ingurua Kultur Etxean: *Euskal mendizaletasunaren oraina eta etorkizuna*.

20:30 Mundumira eszenatokian The Billie Jeans (EH) taldearen funk, reggae eta hip-hop.

22:00 Oreindik (EH) rock eta funk kontzertua.

24:00 The Billie Jeans Espaloia kafe antzokian.

ZAPATUA, 28

9:00 Mendi irteera: Elgeta, Karabieta, Egoarbitza, Intxorta, Intxorta txiki, Iturutz eta Elgeta (4 ordu).

9:30 BTT zeharkaldia (29 Km). Irteera kiroldegian. Izena ordubete lehenago eman behar da.

11:00 Kultur ibilbideak Debagoieneko Turismo bulegoen eskutik.

11:00 IV. Autokarabana kontzentrazioa El Casco lantokiko aparkalekuan.

11:00 *Munduari bira* Elkar marrazki lehiaketaren erakusketa eta sari banaketa.

11:00 Mundumira elastikoaren aurkezpena.

11:00 Azoken irekiera. Mendia eta senderismo azoka, artisautza eta gastronomia azoka. GGKE- Elkartasun foroa, proiektu, ikus-entzunezko eta erakusketen aurkezpena.

11:00-14:00 Elkar umeen gunea frontoi inguruan: *Irrien lagunak kluba*.

11:00 Euskal Herriko boulder txapelketa frontoian

12:00 Habana con Kola Kubako musika tradizionala Mundumira eszenatokian

13:00 Arte Teatro taldearen *Crazy Test* antzezlan

17:00-20:00 Elkar umeen gunea: *Irrien lagunak kluba*.

17:00 Munduko dantzak ikasteko tailerra, herriko plazan.

17:00 Euskal Herriko boulder txapelketa frontoian.

18:30 *Viaje tranquilo al sol de medianoche* ikus-entzunezkoa Sorbeltz elkartearen eskutik Kultura etxean.

19:00 Moya Kalongo (Mozambique) Mundumira eszenatokian.

21:00 Dub INC (Frantzia) Mundumira eszenatokian.

23:00 Los Delinquentes (Jerez de la Frontera)

Mundumira eszenatokian.

02:00 Reggae musika festa Espaloia kafe antzokian.

DOMEKA, 29

9:00 Ibilaldia Ozkarbi taldearekin: Elgeta, Azkonabitzari itzulia, Egoarbitza eta Elgeta. (3, 30 ordu).

10:00 Bisita gidatua: Gerra zibila Euskal Herrian, Intxortako ibilbide tematikoa. (Aurrez izena eman behar da).

11:00 Kultur ibilbideak Debagoieneko Turismo bulegoen eskutik.

11:00 Azoken irekiera. Mendia eta senderismo azoka, artisautza eta gastronomia azoka. GGKE- Elkartasun foroa, proiektu, ikus-entzunezko eta erakusketen aurkezpena.

11:00-14:00 Elkar umeen gunea: puzgarriak eta jolasak.



11:00 Animazioa Africa Baj Yay (Senegal) perkusio taldearen eskutik.

12:00 Kale antzerkia Kukubiltxorekin: *Kukubel 2.0* antzezlan.

12:00 Euskal Labeleko txahal bat erreko dute.

12:00 Mery May eta Ain_1 (Arrasate) Mundumira eszenatokian.

13:30 Jorginho (Brasil) Mundumira eszenatokian.

16:00 Animazioa Africa Baj Yay (Senegal) perkusio taldearen eskutik.

17:30 Kale antzerkia. Bapatean Zirko talde gasteiztarak *Rodomundo* antzezlan aurkeztuko du.

18:00 Andran (EH) pop eta folk doinuak Mundumira eszenatokian.

19:00 La Tropa Kung-Fú (Catalunya) taldeak runba katalana eskainiko du jaiarekin amaitzeko.

31. orrialdetik dator.

kundeen postuak jarriko dituzte. Umeen gunea izango da, oster, kiroldegi ondoko gunea. Zapatuan, 11:00etatik 14:00etara, Pirritx eta Porrotxen *Irrien lagunak kluba* ekarriko dute Elgetara, aurtengo nobedadeetako bat. Bestalde, bai bihar eta baita etzi ere puzgarriak eta jolasak, rokodromoa, tirolina, ohe elastikoa... izango dira gazte-txoen gozamenetako.

Beste nobedadea da kanpatzeko gunea jarriko dutela. Kanpatu gura duenak poligonoan izango du aukera. Gainera, poligonoan autokarabanendako lekua ere jarriko dute. Hala ere, Sorbeltz autokarabanen elkarteak bost autokarabana jarriko ditu ikusgai Ostatu azpiko aparkalekuan.

Kirol arloan, Euskal Herriko boulder txapelketa jokatu da Elgetan. Pilotalekuan izango dira lehiak, bihar, goizean eta arratsaldean.

Garraio publikoa erabili

Elgetan 1.000 autorentako aparkalekua egokitu dute poligonoan, baina antolatzaileek gomendatu dute garraio publikoa erabiltzeko Elgetara joateko. Pesak zerbitzu berezia jarriko du bihar eta etzi, eta autobus txartela 1,7 euro kostako da. Informazio gehiago eta ordutegi zehatzak, www.pesa.net atarian.

Mundumira jaialdia antolatzeko aurrekontua 95.000 euro izan da; eta garraio publikoarena 20.000 euro. *Euskal Herria* aldizkariak eta Mankomunitateak antolatu dute jai.

**IREKI
BIDEA
EZKERRARI
ESKERRIK ASKO
DEBAGOIENA!**

BAKEARI
EUSKARARI
EUSKAL HERRIARI
POLITIKARI

aralar

Kartzela zaharrea emakume ahotsa nagusituko da gaur

Kontzertua 22:00etan puntuan hasiko da eta sarrera 3 euro kostako da

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Egubakoitzak kartzelan egitasmoak emakumeen ahotsa izango du gaur protagonista. Mursego eta Ain_1 taldeko neskek igoko dira kartzela zaharreko taula gainera.

Musika esperimental

Maite Arroita jauregi musikaria dago Mursegoren atzean. Musika esperimental egiten du Mursegok, eta, horretarako, era guztietako elementuak erabiltzen ditu modu librean, eurekin jolas egin eta musika egiteko. Txeloa

Adin guztietako ikusleak

Egubakoitzak kartzelan egitasmoko antolatzaileek adierazi digute gaztetxera beste adin mota bateko jendea erakartzea izan dela asmoa, eta era berean musika lasaia entzuteko aukera eskaintzea. Orain arteko kontzertuek harrera oso ona izan dute.

eta kasiotonea koherentzia nahasten ditu kantu bitxi eta ederrak osatuz. Popean oinarrituta, musika esperimental eskainiko du gaur eibartarrak gaztetxean.

Arrasateko Ain_1 taldeak musika, poesia eta dantza uztartuko ditu gaztetxean. Musikari beste dimensio bat gehitzen dion proiektu interesgarria da Ain_1. *Musika kaxa* euren azken proiektua aurkeztuko dute –laster argitaratuko dute diskoa–. Gaztetxean musika kaxa zabalduko dute eta ikusleak gonbidatuko dituzte



Ain_1 taldekoek otsailean aurkeztu zuten azken proiektua. | JOSETXO ARANTZABAL

kaxa barruan sartuko lituzketenak idaztera.

Jarraipena izango du

Ekimenak izan duen arrakasta ikusita ekimenarekin aurrera jarraitzeko asmoa azaldu dute

antolatzaileek. Hala ere, oraindik ez dute zehaztu zeintzuk izango diren hurrengo datak. Kontuan hartu behar da kanpoan egiten diren kontzertuak direnez eguraldiak baldintzatu egingo duela ekimena bera.

Rock kontzertu indartsua gaur Errekaldeko jaiei hasiera emateko

A.E. | OÑATI

Errekaldeko plazatxoan rock doinuz beteko da gaur. Bost talde igoko dira taula gainera, eta ez edonolako taldeak. Discipulos de Dionisos, Lobo Electrico, Fiachras, Ez! eta CC627 taldeek jardungo dute Errekaldeko jaiei hasiera emateko kontzertuan.

21:00etan hasiko dute kontzertua. CC627 eta Ez! Oñatiko taldeak dira; Fiachras talde bergararrak *Hiltzera goaz* azken laneko soinua ekarriko dituzte.

Discipulos de Dionisos donostiarrak betiko indarrez jardungo dute, eta baita Lobo Electrico tolosarrek ere.



Fiachras taldeko kideak kontzertuan. | GOIENA

'Herrixa dantzan' saiorik ez dute egingo domeka honetan

Mundumira jaialdia dela eta domekan egitekoak ziren *Herrixa dantzan* saioa bertan behera uztea erabaki dute. Hala, maiatzaren 29an ez da saiorik egingo. Hurrengo saioa ekainaren 18an izango da. Elgetako koadrilen egunean egingo dute saioa, Arrabots taldearen laguntzarekin.

EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

imk
ITSAS MENDIKOI
www.itsasmendikoi.net

formazio zikloak
erdi eta goi mailako zikloak
nekazaritza - itsas-arrantza

Aurrematricula
ekainaren 1etik 10era

	ERDI MAILAKO ZIKLOAK	GOI MAILAKO ZIKLOAK
IMK ARKAUTE (ARABA)	<ul style="list-style-type: none"> - LORAZAINTZA ETA LORADENDA - NEKAZARITZA EKOIZPEN EKOLOGIKOA 	<ul style="list-style-type: none"> - NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO ENPRESEN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA
IMK DERIO (BIZKAIA)	<ul style="list-style-type: none"> - LORAZAINTZA ETA LORADENDA - NEKAZARITZA EKOIZPEN EKOLOGIKOA 	<ul style="list-style-type: none"> - NATURA ETA PAISAIA BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA
IMK FRAISORO (GIPUZKOA)	<ul style="list-style-type: none"> - LORAZAINTZA ETA LORADENDA - NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO PRODUKZIOA 	<ul style="list-style-type: none"> - NATURA ETA PAISAIA BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA
	ERDI MAILAKO ZIKLOAK	GOI MAILAKO ZIKLOAK
IMK PASAIA (GIPUZKOA)	<ul style="list-style-type: none"> - ARRANTZA ETA ITSAS GARRAIOA - ITSASONTZITAKO MAKINEN ETA INSTALAZIOEN OPERAZIOA, KONTROLA ETA MANTENTZE-LANAK 	<ul style="list-style-type: none"> - NABIGAZIO, ARRANTZA ETA ITSAS GARRAIOA - ITSASONTZITAKO MAKINEN ETA INSTALAZIOEN IKUSKAPENA ETA KONTROLA


Natura lanbide?
Zatoz Itsasmendikoira!

Nekazaritza eta itsas-arrantzarekin erlazionatutako lanbideetarako prestakuntza praktikoa eskaintzen dizugu.

www.itsasmendikoi.net



Debagoieneko GREMIOAK



AROTZEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzailak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03

T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14

T: 943 79 16 10

F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15

T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

F: 943 79 68 21

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
- Kontratak
- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5

T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22

F: 943 71 55 15

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

T: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

T: 943 77 19 88

F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Hargintza lanak
- Bainugelako altzariak
- Berogailuak
- Erretenak ipini eta garbitzea

Santa Kurtz 7, 3. ezk.

Tel.: 620 17 80 46

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

<http://merkatua.net/argiplastik>

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

F: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

ASTEAGOIENAN



Zegama-Aizkorri mendi maratoia 'Harmailatik'-en

Zegama-Aizkorri mendi maratoia egingo dute domekan eta las-terketako irudi esanguratsuenekin saio berezia egingo dute astelehenean *Harmailatik*-en. Debagoieneko ordezkariak ere egingo diete jarraipena.

'Harmailatik'
Astelehena, 20:45



Mundumiraren koloreak 'Magazinea'-n

Arritxu Barrusok aurkezten duen *Goiena magazinea*-n, astelehenean, tarte berezia eskainiko diote aste bukaeran Elgetan ospatuko den munduko kulturen jaiari. Kolorez, zapoz eta musikaz jantziko da platoa.

'Goiena magazinea'
Astelehena, 19:45

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA 27

ZAPATUA 28

DOMEKA 29

ASTELEHENA 30

MARTITZENA 31

EGUAZTENA 01

EGUENA 02

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Ur eta lur
15:45 Leku txiki bat
16:00 Hamaika.bit
16:30 Ikusmira
16:45 Berriak
17:15 Berbetan
17:45 Ipupomamua
18:15 Leku txiki bat
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Gipuzkoa kultura
21:15 Magazinea
22:15 Bi tartean
22:45 Tertulia
23:45 Bizitegia

08:00 Marrazki bizidunak
09:30 Ipupomamua
10:00 Klik
10:30 28.Klip
11:00 Ur eta lur
11:35 Onein
12:00 Berriak
12:15 Kantari
13:50 Gipuzkoa kultura
14:20 Marrazki bizidunak
15:45 Tertulia
16:45 Gipuzkoa kultura
17:15 Magazinea
18:15 Berbetan
18:50 Bi tartean
19:20 Nere herrie
20:30 Berriak
20:45 Klik
21:15 Magazinea
22:15 Bi tartean
22:45 Hamaika.bit
23:15 Magazinea

08:00 Marrazki bizidunak
08:35 Klik
08:55 Ipupomamua
09:30 Marrazki bizidunak
10:00 Kantari
11:05 28.Klip
11:35 Berbetan
12:15 Ur eta lur
12:50 Tertulia
13:50 Onein
14:15 Gipuzkoa kultura
14:45 Hamaika.bit
15:15 Magazinea
16:15 Nere herrie
17:30 Marrazki bizidunak
18:00 Berriak
18:15 Kantari
18:50 Ipupomamua
19:20 Magazinea
20:20 Bi tartean
20:50 Bizitegia
21:50 Tertulia
21:50 Gipuzkoa kultura
23:20 Magazinea

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Berbetan
14:45 Berriak
15:15 Klik
15:45 28.Klip
16:15 Gipuzkoa kultura
16:45 Berriak
17:15 Nere herrie
18:30 Leku txiki bat
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Harmailatik
21:30 Magazinea
22:30 Harmailatik
23:15 Gipuzkoa kultura

13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:20 Onein
14:45 Berriak
15:15 Harmailatik
16:00 Hamaika.bit
16:30 Ikusmira
16:45 Berriak
17:15 Solasaldiak
18:15 Bizitegia
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Bizitegia
21:15 Magazinea
22:15 Harmailatik
23:00 Magazinea

13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari
14:00 Harmailatik
14:45 Berriak
15:15 Onein
15:45 Hamaika.bit
16:15 28.Klip
16:45 Berriak
17:15 Bizitegia
18:15 Gipuzkoa kultura
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Magazinea
20:45 Tertulia
21:45 Filma: 27 ordu
23:05 Magazinea
23:45 Magazinea

13:15 Marrazki bizidunak
13:15 Solasaldiak
13:45 Kantari
14:15 Berriak
14:45 Onein
15:15 Hamaika.bit
16:15 Filma: 27 ordu
18:45 Onein
19:15 Berriak
19:45 Kantari
20:45 Tertulia
21:15 Gipuzkoa kultura
22:15 Bizitegia
22:45 Magazinea

ARRASATE IRRATIA

Kerobiaren kontzerturako sarreraren zozketa

Eguenetako Arrasateko Kooltur ekimenekin bat eginda, *Igo autobusera* saioan Kerobia taldearen kontzerturako sarrerak zozketatuko ditugu egue-
nean. Parte hartzeko deitu 943 25 05 05 zenbakira.

Asteburuan, asteko onena entzuteko aukera duzue orain

Astelehena zehar *Igo autobusera* saioarekin bat egiterik ez duzuenok, orain, uhin-
etako autobusera igotzeko aukera izango duzue asteburuan. Asteko onenaren laburpena, zapatuetan eta domeketan, 10:00etan hasita.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 28	M.FCA. AZCOAGA	Iturriotz, 17	943 779 79 99
Domeka, 29	ANA FDEZ. CORCUERA	Arambarri plaza, 1	943 79 22 26
Astelehena, 30	JUAN ANTONIO IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Martitzena, 31	LOURDES AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Eguaztena, 1	ANA ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Eguena, 2	AURORA RUIZ	Nafarroa etorbidea 1	943 79 14 09
Egubakoitza, 3	ERKUDEN ETXEBERRIA	Zarugalde 42,44	943 79 16 30

BERGARA

Zapatua, 28	A. URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Domeka, 29	A. URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Astelehena, 30	IÑIGO ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Martitzena, 31	MERCEDES GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguaztena, 1	JAVIER ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Eguena, 2	ALAVAREZ-MOZOS	Iparragirre	943 76 12 15
Egubakoitza, 3	A. URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74

OÑATI

Zapatua, 28	BARRENETXEA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Domeka, 29	BARRENETXEA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Astelehena, 30	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Martitzena, 31	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguaztena, 1	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguena, 2	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Egubakoitza, 3	ANDUAGA	San Lorenzo, 3	943 78 21 16


ARETXABALETA

Zapatua, 28	DOLORES AGIRRE	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Domeka, 29	DOLORES AGIRRE	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Astelehena, 30	M ^o VICTORIA ANITUA	Belorrieta auzoa, 1	943 08 11 43
Martitzena, 31	M ^o VICTORIA ANITUA	Belorrieta auzoa, 1	943 08 11 43
Eguaztena, 1	M ^o VICTORIA ANITUA	Belorrieta auzoa, 1	943 08 11 43
Eguena, 2	M ^o VICTORIA ANITUA	Belorrieta auzoa, 1	943 08 11 43
Egubakoitza, 3	M ^o VICTORIA ANITUA	Belorrieta auzoa, 1	943 08 11 43


Farmazien eskuko telefonotarako 2010 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitria TICek kudeatuta (www.altitria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 20°
Min. 8°



Max. 26°
Min. 10°


ZAPATUA, 28

Udaberriko giro argia izango dugu. Eguna lanbroarekin eta behe-lainoarekin hasiko dugu.

DOMEKA, 29

Temperaturek gora egingo dute eta hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira.

EUSKAL HERRIA



GAZTE INFORMAZIOA

BEKAK

Bilboko Arte Ederren museoa

Bilboko Arte Ederren museoak 9 beka emango ditu hainbat arlotako prestakuntzan laguntzeko, eta gazteak lanera hurbiltzeko. Urriaren hiruan hasiko da eta bederatzihilabeteko beka da (www.museobilbao.com).

Musika

Gipuzkoako Foru Aldundia. Harizko instrumentistentzako Nicanor Zabaleta Beka. Harizko instrumentisten prestakuntza espezializatua jasotzeko urtebeteko beka. Epea: maiatzaren 30a.)

LEHIAKETAK

Urola Garaiko argazki digital lehiaketa Epea maiatzaren 31ra arte.

Argazkiak Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako udalek eta UGGASAK antolatuta, Fokatu Urola Garaia

argazki digital lehiaketa. Epea: maiatzak 31.

LANA

Enplegu azoka 2011 Donostian Ekainaren 8an eta 9an Igarako CEMEI eraikinean. Izena emateko epea: maiatzaren 31 (943 48 28 00).

Arrasate Arrasateko Udala. Hainbat lanpostu betetzeko 2011ko Lan Eskaintza Publikoa. Epea: ekainaren 3a.

IKASTAROA

Udako ikastaroak 2011. Udako Euskal Unibertsitatea. 35 ikastaro Baiona, Eibar eta Iruñean (www.ueu.org).

Enpresak sortzeko ikastaroa Maiatzaren 30etik ekainaren 10era. 943 79 30 90.


GAZTE AGENDA

Ibilaldia 2011. Maiatzaren 29an, domeka, Ondarroan.



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net



Kuir eta Oihane

Kuir Barbarias eta Oihane Fernandez de Arriabe arrasatearrak bihar, zapatua, ezkonduko dira. Familiaren partetik, "Zorionak, bikote! Zorionsu izan zaitetzela eta oso ondo pasa dezazuela eguna!"



Zlata eta Mikel

Zlata Zivojevic eta Mikel Escobar zapatuan ezkonduko dira Eskoriatzan. Ostean familia eta lagunekin Arteaga jatetxean ospatuko dute eta eztei-bidaian Mexiko aldera joango dira. Koadrillaren partetik, "ondo pasatu eta muxu handi bat! Andale-andale!"



Pedro eta Maria

Pedro eta Maria orain dela 50 urte ezkondu ziren. Urrezko ezteiak maiatzaren 29an ospatuko dituzte familiakoekin. "Zorionik beroenak guztien partetik eta egun eder eta zorionsu bat pasatu domekan Aramaio aldean".



Elsy eta Peio

Peio eta Elsy maiatzaren 28an ezkonduko dira Pasaiaiko udaletxean. Gero Igeldoko mendian ospatuko dugu familia eta lagun guztiek batera. Oso ondo pasatzea espero dugu zuentzak hain garrantzitsua den egun hau Eskoriatzako familiaren partetik.



Ariane eta Oskar

Bihar, maiatzaren 28an, Bergarako Oskar Maiztegi eta Ariane Arruti Labegarietako San Jose elizan ezkonduko dira. Egun ahaztezin bat eta ezkon bidaian "bombai" pasatzia opa dotzuegu. Zorionak Arin kuadrilian partetik!

HILDAKOAK

M. Purificacion Aranzeta Arregi. Elgetan, maiatzaren 17an. 90 urte.

Iñigo Maria Jose Antonio Tomos Cafranga. Oñatin, hilaren 18an. 53 urte.

Joxe Uribeetxebarria Gorrotxategi. Aretxabaletan, maiatzaren 19an. 68 urte.

Pilar Askasibar Loiti. Bergaran, maiatzaren 20an. 83 urte.

Pedro Mateos Valor. Aretxabaletan, maiatzaren 20an. 90 urte.

Bittori Irazabal Aranzabal. Oñatin, maiatzaren 21ean. 94 urte.

Jaime Lopez Losada. Arrasaten, maiatzaren 21ean. 58 urte.

Pedro Jose Zudaire Baquedano. Arrasaten, maiatzaren 23an. 73 urte.

Manuel Mateos Fuentes. Bergaran, maiatzaren 25ean. 80 urte.

ESKER ONA

Bittori Irazabal Aranzabal



Oñatin hil zen 2011ko maiatzaren 21ean, 94 urte zituela.

Lerro hauen bidez Bittoriren senideek eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maistasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Egusentiarekin batera aldegin duzu, eguzkia oraindik itzartu gabe zegoenean, Urruti zaitugu ikusten, gure ondoan ez baitzaitugu jada.

Baina zu izan zinen gordeko dugu beti gure bihotzetan, Betirako agur bat esan ezean gero arte batekin itxarongo gaitzuz zeruan.

Oñatin, 2011ko maiatzaren 27an.

OROIGARRIA

Joxe Uribeetxebarria Gorrotxategi



Urkuluko Joxe

2011ko maiatzaren 19an hil zen, 68 urte zituela.

Zuk esana da, heriotza ez dela gure azkena...

Iganderoko zure lagunek, Aretxabaletan, 2011ko maiatzaren 27an.

ESKER ONA

Joxe Uribeetxebarria Gorrotxategi



2011ko maiatzaren 19an hil zen, 68 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko emazte, alaben eta familiakoen izenean.

Bere aldeko meza ekainaren 5ean, 12:30ean, Aozaratza auzoko elizan ospatuko da.

Aretxabaletan, 2011ko maiatzaren 27an.

OROIGARRIA

Jaime Lopez Losada



2011ko maiatzaren 21ean hil zen, 58 urte zituela.

Es en Ziara donde reina la alegría, baina Ziara triste dago Ai ene, lagun maitea hi gure ondoan ez baitago. Zenbat bizipen, zenbat barre, zenbat dantza egin dugun elkarrekin. Musakolako servicio vigilancia, gure astoaren zaindari, gure bihotzetan egongo zara beti. Ikusi arte, lagun.

Alkatetza eta Jai Batzordea. "No pararemos ni de noche ni de día!". Arrasaten, 2011ko maiatzaren 27an.

URTEURRENA

Joxepa Arregi Egidazu



2010eko maiatzaren 24an hil zen.

Zure garra gure indarra! Zure duintasuna gure askatasuna! Laztan handi bat, Gogor!

Etxekoak, Arrasaten, 2011ko maiatzaren 27an.

Babeslea:



Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

GOIENAN ESKELA JARTZEKO
DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05. EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.



Eskelaren prezioa: 126 euro. Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

ARETXABALETA Gipuzkoako bertsolari txapelketa

Gipuzkoako bertsolari txapelketako lehen faseko bigarren itzulia hasiko dute aste bukarran. Zortzi kanporaketa jokatuko dira guztira eta horietako bat Aretxabaletan izango da, domekan. Bi saio egingo dituzte: bata goizean (11:30) eta bestea arratsaldean (17:30), seiko taldeetan.

Domekan, Arkupean.

**BERGARA** Mursegok eta Ain_bat

Txeloak soinean eta sorginkeriazko soinu-kiribilekin, Maite Arroitauregi eibartarrak, Mursegok, lan berria aurkeztuko du. Harekin batera Ain_bat arrasatearrek joko dute; hain zuzen, Mursegok kolaboratu du haien disko berrian.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

MUSIKA**BERGARA** Musika Eskolako udaberriko kontzertua

Musika Eskolako udaberriko kontzertua egongo da udal pilotalekuan eta 21:00etan afaria. Sarrera: 2 euro (12 urtetik beherakoek), gainontzekoentzat 4 euro.

Maiatzaren 28a, zapatua, Udal pilotalekuan, 19:00etan.

ARAMAIO La mexicana clandestina taldearen kontzertua

Musika, alaitasuna eta elkartzasuna Iturrietako terrazan.

Maiatzaren 28a, zapatua, Iturrieta sagardotegian 19:00etan.

ANTZERKIA**DEBAGOIENA ELGETA** Kukubiltxo

Mundumiran kale antzerkia ere egongo da.

Maiatzaren 29a, domeka, aHerriko plazan, 12:00etan.

IKUSKIZUNAK**ANTZUOLA** Ipuin kontaketa Torresoroan

Tim Bowley eta Charo Pita ipuin kontalariak Torresoroan jardungo dute. Tim European eta Amerikan zehar dabil azken 20 urteotan ipuinak kontatzen. Munduko kultura desberdinetako tradiziozko istorio magikoak hartzen ditu hizpide bere ahots sakon eta sarkorarekin. Charo, berriz, kantaria da eta duela 10 urte baino gehiagoan hitzen eta erritmoen artean dabil jolasean. Sarrera 3 euro.

Gaur, maiatzaren 27a, egubakoitza, Torresoroan 22:30etan.

DANTZA**ELGETA** La Troba Kung-Fú

Mundumirako ekitaldien barruan, runba doinuak kataluniatik. Jaia-aren amaieran dantza dibertigarriak egiteko aukera egongo da eta jaialdiarekin gorputza mugituz amaitzeko aukera.

Maiatzaren 29a, domeka, Herriko plazan, 19:00etan.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

MAIATZAK 27
EKAINAK 02

BERGARA DJ jaialdia

DBHkoentzako DJ jaialdia egongo da, Jon Urbietarekin, 18:30etik 21:30era, Zabalotegin. Sarrera doakoa izango da.

Maiatzaren 28a, zapatua, Zabalotegin 18:30ean.

IKUS-ENTZUNEZKOAK**BERGARA** "The Tourist"

"The Tourist" filma proiektatuko da. Zuzendaria: Florian Henckel-Donnersmarck. Generoa: intriga. Iraupena: 103 min. 7 urtetik gorakoentzat.

Maiatzaren 29a, domeka, Zabalotegin Aretxean 19:30etan.

BERTSOLARITZA**ARRASATE** Bertso bazkaria Txondorran

Larunbatean bertso bazkaria egongo dute Txondorra sagardotegian. Bertsoetan jardungo dute: Jon Maia, Xabier Silbeira, Julio Soto eta Fredi Paiak. Bazkarirako txartelak 38 eurotan daude

salgai Irati, Taupa eta Gure Leku tabernetan.

Maiatzaren 28a, zapatua, Txondorra sagardotegian 14:00etan.

UMEAK**BERGARA** Jolasleku ibiltaria

Jolasleku ibiltaria egongo da Domingo Martinez Irala kalean, Jardunekin.

Maiatzaren 27a, egubakoitza, Domingo Martinez Iralan 17:00etan.

HITZALDIAK**ELGETA** Larrialdi humanitarioa Baltistanen

Felix Baltistan Fundazioak egingo du hitzaldia.

Domekan, Elgetako kultura etxean, 12:30ean.

ARRASATE Mendebaldeko Sahararen egoera

Arrasateko Kulturaten, Jokin Zaitegi gelan 'The-rtulia' egingo dute 19:00etan Mendebaldeko Sahararen egoeraz. Rachid Seghayer Aktibista sahararrak bizipen

pertsonalak eskainiko ditu Kulturaten.

Maiatzaren 31an, martitzena, Kultur Aten, 19:00etan.

ELGETA Euskal mendizaletasuna, hitzaldia

Mundumiraren barruan, *Euskal mendizaletasunaren oraina eta etorkizuna* delako hitzaldia. Antolatzailea: Euskal mendizale federazioa.

Gaur, egubakoitza, Elgetako kultura etxean 19:00etan.

ELGETA Azkonabittari itzulia

Elgetako Ozkarbi mendi taldearen eskutik hiru ordu eta erdiko mendi irteera. Ibilbidea: Elgeta -Azkonabitta-Egoarbitza-Elgeta. Desnibel oso gutxi.

Maiatzaren 29a, domeka, Elgetako informazio gunetik 09:00etan.

BESTELAKOAK**ELGETA** Txahala erreko dute

Mundumiran Maala parkean. Eusko labeleko txahala.

Maiatzaren 29a, domeka, Maala parkean, 12:00etan.

ELGETA Bisita gidatua, lubakietara

Gerra Zibila Euskal Herrian: Intxortako ibilbide tematikoa. Ezinbestekoa aurrez udaletxean izena ematea.

Maiatzaren 29a, domeka, Espaloia kafe antzokian 10:00etan.

ELGETA Umeen gunea, Mundumiran

Puzgarriak, Irrien Lagunak kluba, ohe elastikoak, rokodromoak...

Maiatzaren 28a, zapatua, Elgetako kantxan, 17:00etan.

ZINEMA**ARAMAIO** 'Shrek, felices para siempre'

Sinopsia: "Shrek triste dago bere lehenengo bizitzara bueltatu nahi duelako, benetako ogro bat zeneko bizimodura. Horretarako kontratu bat sinatuko du Rumpelstiltskinekin bere jatorrirra bueltatzeko. Baina ahaleginean, mundua aldrebesa bihurtzen da".

Maiatzaren 29a, domeka, Kultur etxean 17:00etan.

DEIAK**ANTZUOLA** Atez atekoaren jarraipen batzordea

Batzordeak ohiko jarraipen bilerak egingo du eguenean.

Ekainaren 2a, eguena, Orlaranen 18:30ean.

ARRASATE Hileko Azken Ostirala

Euskal Preso eta Iheslariak Euskal Herrira eskubide guztiekin leloa duen elkarretaratzea egubakoitzean.

Maiatzaren 27a, egubakoitza, Herriko Plazan, 19:30ean.

IZENEMATEA**ARETXABALETA** Lourdesera erromesaldia

Urtero legez gaixoen erromesaldia egingo dute elizbarrutitik Lourdesera eta Aretxabaletako parrokiak maiatzaren 28 eta 29rako (zapatua eta domeka) antolatu du.

Izena emateko sakristiara joan beharra dago.

Maiatzaren 26a, eguena, Aretxabaletako parrokiaren 20:00etan.

**ELGETA** Los Delinquentes

Mundumira jaialdiaren barruan joko du Cadizko taldeak, euren musika "garrapateroarekin". Horixe da euren estiloa azaltzeko darabilten berba eta izenondo horren barruan kabitzen dira flamenco txantxatitik hasi eta funkik dantzagarriaraino. Jai eta dantzarako aitzakiarik ez da faltako Elgetan.

Zapatuan, plazan, 23:00etan.

COVERALIA.COM



goiena

2011-05-27

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

Badator Kantari bazterrak alaitzera

- ▶ Izena emateko epea astelehenean hasiko da, hilak 30, eta egubakoitzean bukatu, ekainaren 3an
- ▶ Debagoieneko gaztetxo guztiak kantuan eta dantzan ipiniko ditu aurten ere karaoke ikuskizunak

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Debagoienean bizi bazara, 1999 eta 2003. urte artean jaio bazinen eta euskal kantuak abestu eta dantzatzeko prest bazau, animatu eta eman izena Kantari karaoke ikuskizunean.

Udazkenean egingo dugu karaoke saioa, aurten hirugarren aldiz, eta bailarako herrietako gaztetxoak kantuan eta dantzan jarriko ditugu beste behin.

Herriz herri joango gara Kantariekin bazterrak alaitzera; beraz, gure abestiak dioen moduan: "Ez geratu begira, batu gure artera, herriz herri kantari, bazterrak alaitzera".

Eman izena

Izena emateko epea astelehenean, hilaren 30ean, zabalduko dugu; ekainaren 3a, egubakoitza, izango da azkeneko eguna.

Izena emateko hiru aukera egongo dira: zuen eskoletan banatuko ditugun eskuorrien bitartez, Goienako edozein egoitzatan izena emanda edo Internet bidez www.zugaz.com helbidean.

Gutxienez hiru laguneko eta gehienez bost laguneko taldeak osatu beharko dituzue eta abestiak zozketa bitartez banatuko ditugu.



Maite Albes dantza-gidaria eta Amaia Txintxurreta aurkezlea. | XURTZELAI

Berrikuntzak

Aurtengo dantzei dagokienez, berrikuntzak izango ditugu. Maite Albes aurreko urteetan Kantarin ibilitako dantza irakasle ezagunarekin koreografia bideoak grabatuko ditugu eta bertan pausoak azalduko dizkigu modu

dibertigarrian. Bideo horiek Internetera igoko ditugu eta gaztetxook modu errazean bertatik dantzak ikasiko dituzue.

Kantu berriak ere gehituko ditugu aurtengo karaoke ikuskizunera. Hauek, besteak beste: Ken Zazpiren *Hel nazazu eskutik*

eta *Itsasoa gara*, Betagarriren *Bizitzari txistuka* eta *Sweet Mary*, Lainen *Itxaropen hautsien kaxa*, Gatiburen *Prest*, Gariren *Zaharra zara Bilbo*, Fermin Muguruzaren *Urrun*, Goienaren *Komunika* edota Pirritx eta Porrotx pailazoen *Irrien lagunak*.

Dibertitzeko gogoz

Aurreko urteetan bezala, parte hartzea eta ondo pasatzea izango da garrantzitsua. Beraz, kantatzen eta dantzatzeko gogoia baduzu, hartu parte Kantarin; lagunekin eta Amaia Txintxurreta aurkezlearekin batera esperientzia ahaztezina bizi izango duzu.

Ikuskizunak Arrasateko, Oñatiko, Bergarako eta Aretxabale-tako aretoetan egingo ditugu, ohi bezala, eta bertan, herri guztietako ume eta gaztetxoen hartuko dute parte. Gero, Goiena telebistan emango ditugu emanaldi horiek guztiak ikuskizunekin etxetik ere gozatzeko.

Ez hutsik egin; aurten ere, zatoz gurekin kantari!

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



Tentazioari eutsi

Egoera bihurria utzi dute hauteskondeek. Seguruenik, ezin zen bestela gerta. Espainian haserretu berri dira krisia bereziki jasan duten hainbat gizatalde, baina gurean haserretu zahar asko dago espainiar demokraziaren krisiak denboran zehar kolpatutako sektore ugarietan. Haserre horrek eta normalizazio politikoaren esperantzak eman diote Bilduri sekulako arrakasta eta beste guztiei buruhauste galanta.

Orain tentazioei eusteko garaia dute batzuek eta besteek. Bilbuk berak garaipen handia izan du, baina beste guztiak gehiago dira, baita Gipuzkoan ere. Esan daiteke gipuzkoarrek aldaketa batzuk nahi dituztela, baina ez oraingoaren kontrako. Bildu indar nagusia da, baina ezin du beste guztien kontra jardun.

Besteek ere eutsi egin behar diote Bilduren kontra antolatzekeko tentazioari. Egia da denak batuta gehiengoak direla, eta, beraz, mantendu dezaketela orain arteko estatusa. Baina abisua ez da makala izan, hain zuzen egungo estatusa aldatzearen alde. Bildu baztertzeko bigarren ahalegin batek ordain latza izan lezake bi urte barruko hauteskundeetan.

Hobe dute, batzuek eta besteek, lana banatu eta esparru komunak lantzen hastea.

PREST
m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Enpresagintza Fakultatea

IRUN MAIATZAK 28 larunbata, 11:00

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE EKAINAK 11 larunbata, 10:30

Biteri Ikastetxe Nagusia

